Pablo Sastre

Kristalezko bularrak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1990 Pablo Sastre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1990eko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

NESKA LARROSA

– Neska horrena, penagarria duk. Nik lantegi honetan egin zuen urte t'erdi hartan ezagutu niken; neska sinplea zuken, neska jatorra.

Hona etorri zenean, zer izango ziken?, hogeitabi urte baino gehiago ez ziken izango, neska ederra zuken, ile errubioa, aurpegi larrosa.

Horren gurasoak Beasaingoak omen dituk, ez dituk oso zaharrak izango, ni baino gazteagoak bai noski, esango nikek. Klase piska batekoak izan behar ditek, aitak mekanika tailer handi samar bat izan behar dik, eta etxe dotore batean bizi behar ditek, deusen faltarik ez dutela, neskameak eta... Dirudun jendea; jende harroa, esango nikek. Orain hamabost bat urte, bai setentaicuatron hola izango zuken, Ormaiztegi bidean txalet bat egin zitekeen eta seme-alabekin hara bizitzera pasa. Bi seme omen dizkitek, eta alaba bakarra, hori, Lurdex.

Jardinzai hire moduan etorri zuken hona, besterik ez izan-da, eta premia handia zuelakoz; hi baino premiatsuago bai ibili hura, seme txiki bat

bait zuen, eta bakarrik hazi behar ziken. Bestela esku lanetan oso trebea izan behar ziken, minbrearekin saskiak eta bandejak eta figurinak egiten omen zekiken baina, horrek ez bait du sosikan ematen! Lagun zahar bati esker edo ez zekiat nola, behinipehin Donostia honetan loreak zaintzeko enkargatu zioteken.

Tenore hartan hasi ginuken Donostiako jardinetan arrosa ugari sartzen: sasitakoa, *floribunda*, eta trepatzailea, *excelsa*, Amarako paret haietan, eta Groseko horretan ere bai. Orain, haietatik, ale gutxi geldituko duk, *floribunda*-ren ordez *polyantha* paratu geniken – tikixeagoa izan arren zerbait iraunkorragoa ere badena bentajan–, eta trepatzaileak abuztu txar batean marsonia horrek eta lur azpiko hongoek eta, iaia zeharko izorratu zizkiguketen.

Hala etorri zuken, eta segituan hartu ziken ilusioa. Berak aldatzen zituen loreak, nola zaintzen zizkiken! Gusto ematen ziken, ikustea bakarrik. Aparte, oso polita zuken. Zen politarekin, eta zeukan eskolarekin, arraro ematen dik, ezta?, hau bezalako lanbide batean aritzea –gurasoak ez omen zeudeken oso konforme baina,

apenas inoiz ikusten zizkiken eta– eta ikusi nahi ere ez, neska independientea zuken eta, bere kasa ibiltzea gustatzen zitzaiona.

Beasainen txiki-txikitatik atentzioa deitzen omen ziken, bere edertasunagatik. Arront ile errubiokoa, begi berde-samurrak, zenbat aldiz ez omen ziteken herriko mutilek etxe-atariraino segitu, esku sartzekotan; baina Lurdexek bazekiken bere burua zaintzen; harik eta...

Halako batean, ez bat, ez bi –zer? hamazazpi urte?–, denak bertan behera utzi eta tipo alproja batekin aldegin ziken etxetik.

Tipo hori, ez zekiat nongoa zen, ez nola izena zuen: Lurdexek ez ziken aitatu behin ere; harek behintzat, zera egin omen zioken: izorratu, ederki izorratua, harek egin zioken eta semea, eta gero bazterrera laga. Pasta polita zuena izan behar ziken mutil harek, desgraziatu samarra. Lurdex hona sartu zenerako behintzat, mutilak utzita ziken, edo berak utzi ziken mutila, hori esan gabe ez bait da jakiten, eta horretaz kontu gutxi ibili geniken; bakar-bakarrik zekiat mutila Bilbo aldera abiatu zela, eta neskak Donostiara

jo zuela, eta Donostian gure lantegi txar hau aurkitu zuela.

Semeak bi bat urte ziken, eta Trintxerpen hartu ziteken pisua: pisu txiki bat, bientzako nahikoa.

Neska bakarra eta, errubioa eta, polita eta, gurasoek arront mimatua omen ziteken baina, horrekin eta guzti neska sentziloa zuken, umila, edozein detailerekin alegratzen zena eta... bihotz handiko neska.

Gurasoen etxea utzi bazuen, ez ziken bere kulpa bakarra izango. Askotan haurrari gehiegi eskatzen zaiok, benga-eskatu eta benga-eskatu eta halako batean uste ez den tokitik egiten dik ra!, akabo! –gero, putakume hura etorri eta eraman zuelakoz, ez gaituk harrituko! Horrexek galdu zuela? Horrexek galdu ez balu, beste batek galduko ziken! Bizimodua halakoa zeramakiken eta, gizonak beti bere arrastoan eramaki... Gogor egin balie...! Baina hura halakoa zuken, hemendik eta, gorputzez ere zera, sentsiblea... Maitagarri zuken.

Loreei ematen zien tratua gogoan zeukeat. Lana fin egiten ziken, hasi aldatzeko momentu-

tik (berak ekartzen ziken, R-4 batean, lur berria Uliatikan, Aiuntamentuko zeratikan) eta segi irrigatze lanean, zimaurtzerakoan, plastiko paratzen... Harek aldatu landareari ez zitzaioken, ez, azala zimurtuko, ez sustraiak erreko edo jelatuko. Eta kimaketan nik inori ikusi ez diodan esku antzosoa ziken –eta ez duk brometarako!: hik gaizki kimatzen baduk, konturatuko haiz, lore ttikiagoak ateratzeaz aparte, adarrak ere ahuldu egingo zaizkik, eta mahastiaren itxura hartzen ditek hola... Ikasiko duk, bai, puska batean, horko truko eta manejoak.

Orduan, neska honi, hemen ari zela, beste mutil bat enroilatu zitzaioken. Igual neska errexa zela inpresioa ematen ari nauk, eta etzakela pentsa, hain errexa zenik. Gurean ere, bakarren bat saiatu zuken tajada ateratzen, Emilio hori... baina, gaizki sartu zitzaioken, hasieratik arras... biolento, eta neskak uko egin zioken, eta berotu zuken hau, badakik, eta - honetaz isilik egon hadi e?, horren belarrietara iritsiz gero nik kontatua dela jakingo likek-, egun batean bortxatu nahi izan ziken, putakume horrek, hazietarako horretan, gu besteok aterata ginela -baina neska

ez zuken oso makala, gorputzez fuertea eta, defenditu egin omen zuken, barrabiletan ostikoa jo edo ez zekiat zer egin zioken eta listo utzi omen ziken.

Baina beste mutilarena kontatu behar niken. Nik ez niken ikusi haiek nola hasi ziren, behinipehin denbora piska baten buruan hasi zuken tipo hura, tipo flakosta, begirada bizikoa, hasi zuken bada neskaren bila azaltzen honara, eta gero larunbat batean ere paseoan ikusi nizkiken, neskaren umearekin, Unai izena zuena, aldian ume potoloa eta sanoa ematen zuena.

Neska piska bat enamoratu egin zitzaioken mutil flako hari. Klaro, zeinek ematen dien indarra, hari ematen ziotek zera emakumeek, eta umeari bastante kariñoa zioken harek baina, beste zerbait behar ziken ezta?, lanetik atera eta umea guarderiatik jasotzen ziken eta gero bizimodu petrala zeramakiken, Trintxerpen hala-halako lagunak, jende infiltratu xamarra, enkanbio beste alderdiko pertsona bat izanez gero pues, diferente izaten duk.

Bost edo sei hilabetez ibiliko zituken horrela, udaberri lehenean hasi eta, irailean gertatu zuken.

Irailean, badakik zer izaten den Donostia, jendea franko, estropadak direla eta, eguraldi ona eta, hau eta hura, zineko festibala... Eta zine festibal batean izandu zuken prezisamente. Gu, Lurdex eta biok, eta Ramon, «limpieza»ko beste bat, arestian jubilatu dena, Intxaurrondokoa, horko, Bulebarreko lorategi horietan ginuken, Ramon osto-biltzen, ni mangerarekin, eta lore garbitzen, gure Lurdex hau; retoño osti bat atera zitzaiola, gogoratzen nauk, eta zerra tikiarekin ari zuken, hantxe. Guriako hortan, berriz, eguerdiro bezala, makina bat jende eserita terrazan: zineko jendea, aktoreak, señoritak, eta hola; paseanteak, eta energumenoak eta klase piska batekiko ganadua. Eguzkiak jotzen ziken, goxogoxo.

Halako batean, brrrrrraum!, sekulako hotsa, burua jaso eta Victoria Eugenia pare-parean hauts pilo bat altxatu duk eta gero garraxiak eta sirenak eta bullak: atentatu bat. Polizi bat garbi-

tu ziteken, furgonetan zihoala, eta beste bi zaurituta utzi.

Asuntoa duk, handik hamabost egunetara edo, periodikuetan tipo baten fotoa publikatu zutela, atentatu horretan inplikatuagatik: zein izango eta Lurdexek udara hartan tratatu zuen mutil huraxe!

Ez zen noski gehio azaldu. Lurdexek ongi eraman ziken hasieran, gero berriz behera eta behera hasi zuken eta... «Ez al din eskribitzen harek?», galdetu nioken behin. Eta bere begi handi samur haiek altxatu zizkidaken eta irriparre triste batekin «ez» esan zidaken, bakarrik. Gero, mutil hori eskapatua dela, entzunda niok. Total, harek ere, utzi; eta ez zuken uzteko moduko neska, baina.

Gero zalantzan ibili zuken. Lanean dexente bajatu zuken, eta urtea kunplitzerakoan beste sei hilabetetarako berritu zioteken kontratua baina perspektibak ez zituken onak, plantila murriztu egin behar zela esaten ziteken eta, gurean sobera jende ginela esaten ziteken eta, azkeneko etorriak pagatu behar!

Hemendik aldegin baino lehenago hasi zuken ordea droga asunto horretan. Trintxerpen bertan egin behar ziteken, koadrilan, edo nik ez zekiat nola egiten diren horiek. Nik egunetik egunera ahulago ikusten niken, kriston astelehenarekin etortzen zuken, eta lagundu egingo nioken, mekaguendios, gazteago izatez geroz... baina edadea badakik, gauzak ezin beti esan eta... hori horrela izaten duk.

Ja momentu batean perspektibarik gabe aurkitu zuken. Sobra’re azkeneko mutil harekin ilusio bat hartu ziken, eta harek utzi eta gero lurra jo ziken. Hor bere barrioko lagun pattal haiekin segitu ziken, ez bait ziren amistaderik egokientsuenak izango, eta bertan hasi zuken bere burua, nik uste, akabatzen.

Bere izakera librea gogoratzen diat. Ez ziken batere kate edo loturarik onartzen, erabat bere kasa bizi nahi ziken, eta bere mutikoa ere libertade estilo horretan hazi nahi ziken. Hemen ere, lana gustora eta inork agindu gabe egiten zuelakoz egiten ziken ongi, bere martxan, beti bere martxan, bere kariño guztiaz, detaile batzuk... Behin, hor plaian bainatu zela eta konten zegoe-

la eta, arrosa gorri tiki bat paratu zidaken alkandoran, hemen...

Harek ez ziken bestela ere denbora luzean aguantatuko hemen, jendearekin gora-beherak izaten dituk eta hura ez bait zen hartarako gogorra, Emiliorekin noski topo egitea ebitatzen ziken eta disgustora zebileken azkeneko.

Hala behintzat, noizpaiteko batean bukatu zitzaioken lana eta aldegin ziken eta ez zuken hona beste inoiz azaldu. Ezkeroztik behin bakarrik ikusi niken, eta arront desmejoratuta zegoken, larrosa kolore galdua, begizulo batzuk... Portuk, Beasaingoa duk eta, kontatu ziguken gero, herrian berak aditutakoa: beste tipo batekin enroilatu zela eta Mediterraneo aldera joan zirela, ez zekiat Ibizara ez ote zuen esan, umea txintxilik hankutsik omen zebilela, minbrearekin-eta lantxo batzuk egiten zituela, eta haiek saldu...

Une hartan Emilio azaldu zen, Joxeri etenik hizketa.

– Zer, lan egin behar al dugu, ala! – esan zuen, erdi-bromatan, erdi-seriotan.

Ez Joxek ez Mikelek esan zuten deus.

– Zer ari zarete, ba, hor kopetilun? –galdetu zien, nagusi doinuaz, Emiliok.

Mikelek egunkaria luzatu zion, notizi tiki bat seinalatuz.

«Joven beasaindarra, muerta en Sitges».

Emiliori, irakurri ahala, jestoa okertu zitzaion; gero, begi makur, egunkaria tolestatu zuen, «neska gajoa!» marmarikatu zuen eta gelatik atera zen.

Handik instante batera:

– Kabroia... –utzi zuen erortzera Joxek.

– Horri hankatartekoa aixtur zabalekin... –esan zuen Mikelek amorruz.

Baina Joxek, hamarretakoaren hondarrak poltsara bilduz, etsipenezko keinu mikatza erakusten zuen ahoan.

ARDO USAINA

Susani atea ireki zion emakumeak, zaharrago irudituagatik, berrogeiren bat urte izango zituen. Ilea nahasita zeukan, eta aspaldi lo gutxi egin duenaren musua.

– Amalia? –galdetu zion Susanek apal.

– Bai – eta izua eta zalantza nabari ziren atea ireki zuenaren ahotsean.

– Susan Peres naiz, udaletxekoa. Lindak pasa zidan informea...

– A bai! –Amaliari espresioa argitu egin zitzaion, eta Susani, dorpeki, bidea zabaldu zion–. Zure zain egon naiz...

– Bai; ez dut lehenago etortzerik izan.

Amaliak beren atzean atea itxi zuelarik, korridore estu eta ilun batean aurkitu zen Susan. Gurutze bat antzeman zuen soilik, paret bateko paper hautsiaren gainean.

– Pasa, pasa zaitez hona – esan zion Amaliak, aurreraxeago, eskuinean zegoen sukaldera sarraraziz, eta Susanek halakotsu interesa somatu uste zion, etxeko beste gelarik ez zezan ikus.

Kaleko zohargiak apenas argitzen zuen sukalde txikia. Aulki batera igo zen Amalia eta bonbilari ukitu batzuk egin zizkion, piztu zen arte. Irribarre xoilez jeitsi zen handik.

– Eseri, eseri zaitez – esan zion Susani, eta balizko hautsaz garbi-xamartu zuen aulki koloka bat.

– Eskerrik asko – jarri zen Susan; baina, Amaliak ez bait zuen eseritzeko imintziorik egiten: –Ongi al datorkizu, oraintxe hitz egitea?

– O bai – esan zuen, soberazko adeiaz, Amaliak–. Badut denbora...

– Ez zara ateratzen goizean?

– Ez – buruaz ere egiten zuen uko–. Etxean egoten naiz.

– Eta Henri, lanean izango da.

– O bai. Gauean etorriko da –hitz haietan mina somatu zuen Susanek.

– Igeltsero da ezta?

– Bai – instant batez xor gelditu zen Amalia–. Badakizu, paletarekin eta...

– Eta alabak: eskolan izango dira ala?

– O! –keinu sentigarri bat egin zuen Amaliak–. Hala beharko lukete!

– Zer esan nahi duzu, beharbada ez direla eskolan izango?

– Goizean atera dira – Amaliak besoak antxumatu zituen, hotzak bezala; Susanek ere sentitu zuen hotzikara–. Baina batzutan ez dira eskolara joaten.

– Maistrarekin mintzatu zara?

Begi ubelak erori egin zitzaizkion Amaliari. Gero jaso zituen atzera.

– Bai. Kurtso honetan ez zirela oraindik azaldu esan zidan.

– Baina, badira bi hilabete hasi zela kurtsoa. Isiltasun mehe bat gertatu zen sukaldean; Amaliak hautsi zuen:

– Zerbait hartuko duzu –gonbidatu zuen, orduraarte ezer eskaini ez zuelako biziki kezkatua–. Gaseosa ttantta bat edo...

– Ez, eskerrik asko –uxatu zuen Susanek atseginki–. Hamaiketakoa eginda etorri naiz...

Halere armario batetik txorizo mutur bat atera zuen Amaliak, eta mahai gainean utzi. Zenbait ogi porro zahar zegoen mahai hartan, sagar ustel bat eta irrati tripagabetu bat. Trapo

batez bazterkatu zituen apur bat haiek emakumeak.

– Zergatik uste duzu ez direla eskolara joaten zure alabak?

– Ez zaie gustatzen – Amaliak ez zekiena egin zuen sorbaldez–. Nik ez dakit zer duten ez bait dira joaten. – Ez diezu problema berezirik ikusten?

– Lehengo eskolatik bidali egin zituzten –orduan, begiak jiratu zituen, eta espantuz erantsi:– Baina orain, ez bait dira joaten!

– Non ote diren...?

– Kalean! –bota zuen Amaliak xaloki–. Kalean ibiliko dira...

– Ez al dizute deus esaten, ez al duzue hitzegiten...? –Hitzegiten dugu baina... –esan zuen Amaliak,

Susani fijo-fijo begira–. Gutxi!

Esku tartean zerabilen, urduri, trapoa. Haren atzean, ispiluño bat ikusi zuen Susanek. Gaiaz aldatzea erabaki zuen.

– Zer moduz, gizonarekin, orain?

Amaliak eskua masailera eraman zuen, auhen eginez.

– Gaizki – eta ezpainetan kozka egin eta gero: – Jo egin nau berriz ere.

– Denuntzia jarri al duzu? – galdetu zuen Susanek agudo.

– Ez dut denborarik hartu – esan zuen, baina beste zerbaiten itzala somatu zuen Susanek.

– Zemai egin dizu?

– Gaixoa badakizu –bapatean mihia askatu zitzaion Amaliari– txikiteoan ibiltzen bait da mozkortuta etortzen da gauean eta behartzen nau, eta nik kontra egiten badiot okerrago bait da, trakestu egiten da, jo egiten nau eta ohera eraman eta behartzen...

– Askotan egiten al du hori, Amalia?

– Bai...! –baina, berea gabe, historia arrotz, harrigarri bat kontatzen ari zela zirudien–. Lehengoan erreta etorri bait zen, afaria jarri nion baina bukatu gabe orruka eta porraka hasi bait zitzaidan etxetik alde egin nahi izan nuen baina berak eskaileran heldu zidan eta, Nora, bigarrenekoak, dena ikusi zuen, etxera sarrarazi zidan, alaba negarrez etorri zen ni defendatzera baina hari ere atearen markoaren kontra burua jo zion koskorra atera bait zaio. Begira...

Hanka ubeldua erakutsi zion Susani.

– Bizkarrean ere badut zenbait seinale...

– Ba al daki, berezi nahi duzula?

– Bai, horregatik jotzen nau.

– Garbi esan al diozu?

– Bai, baina... – ahotsa ikaratu zitzaion–. Ez, berak ez daki...

– Entzun, Amalia –baina hurbilagotik mintzatu nahi zion: – Ez al zara eseritzen?

– Atera zait grano bat ipurdian! –orduan bai, min itxurapena egin zuen Amaliak–. Ezin naiz eseri! Zuk deitu duzunean ere ohean nengoen, horregatik!

– Entzun – moztu zion Susanek–. Hemen ezin duzue segitu baina, nahi baduzu gizonarengandik berezi, haren kontra denuntzia jarri behar duzu! Uste nuen Lindak oso garbi esan zizula.

– Bai, arrazoi duzu gaixoa – orain trapoa kanila gainean laga zuen eta bi eskuak lotu zituen lazoki, segituan askatzeko atzera–. Baina, parre egiten bait du! Justiziak ezin duela bere kontra deus, esaten du! Ni ez naizela alde egiteko gauza eta dirurik gabe nora joaterik ez dudala,

eta joanez gero aurkituko nauela eta ederki damutuko naizela...

– Baina zuk badakizu horiek gezurrak direla.

Amaliak ez zion jaramonik egiten. Poz bakunaz esan zuen:

– Orain desiratzen nago, datorren astean ehizera bait doa.

Susanek beste galdera konprometitu bat egiteko unea iritsi zela eritzi zion.

– Jose de Sousa, ikusi al duzu aspaldi?

– Jose? – instant bateko diztira agiri zen Amaliaren begietan–. Ez, honekin burruka egin zuenetik ez da gehiago azaldu...

– Ez al dakizu non dagoen?

– Ez...

Biak isilik gelditu ziren momentu batean.

– Maite al zenuen, hura?

– Atsegina zen –epel mintzo zen Amalia, arrotz bati buruz ari balitz bezala–. Baina, hark ere bazuen bere emakumea. Edo beldurra hartu zuen, kankailu honekin –pausaldi bat egin zuen eta gero, esku ahurraz artega igurtzen zuelarik okozpea:– Lehengoan, astoak, nire gauzak bait

nituen, zikin nengoela esan eta lurrean lo egitera behartu ninduen.

Susanek burua kordokatu zuen.

– Udaletxean esan behar dituzu horiek.

Baina Amaliak hasperen egin zuen.

–Amets egiten dut... Gaur amets egin dut, San Antonion bizi nintzela, etxe eder batean alabekin...

– Amalia – iratzarri zuen Susanek–. Etxea ikusi al dezaket?

– Bai! – esan zuen, xerukiro, Amaliak–. Ikusi, ikusi.

Susan abiatu zen, Amalia orpoz orpo zeramala gibelean.

– Etxe txikia da, gaixoa – esplikatu zion–. Hor sala –eta, neskengatik nabari zen errixta moduan: –Oheak egin gabe beti.

Bi ohe zeuden, jasotzen diren horietakoak, telebista, sila bat. Maindireak eta nesken arropak xurruburru, han-hemenka zabalduta zeuden. Armario baxu bateko ateak ere irekita zeuden, barruan arropa gehiago ikusten bait zen nahas-mahas. Egutegi zahar bat, panpin hautsi

bat, ez zen paretetan, ez beste inon, beste apaingarririk hatzematen.

– Txiki zirenean telebista ikusten gelditzen ziren... –esan zuen Amaliak, pena sinple batez.

– Baina zure alabek bederatzi eta hamar urte dituzte – zuzendu zion Susanek, eta berriz hotza sentitu bait zuen: –Ez al duzue kalefakziorik etxean? –galdetu zuen.

– O bai –eta sala haren pareko gelan errebista batzuren azpian zegoen butanozko estufa erakutsi zion. Matrimonioaren logela behar zuen noski hark, eta bestea bezala bildu gabe zegoen. Ohea, mesanotxe txikia eta horman sartutako armarioak osatzen zuten hango muebleteri guztia. Salak bezalaxe, patiora jotzen zuen gela hark, sukaldea izaki nonbait kale-bista zuen etxeko pieza bakarra. Estufaren atzean berriz, garrafa bat ikusi zuen Susanek. Haren usaina igarri zuen.

– Hemen, komuna... –desbideratu zuen haren arreta Amaliak.

Baina Susanek ez zuen hara begiratzen.

– Noiz izango dira zure alabak etxean? –galdetu zion.

– Alabak? –oso harritu zen Amalia.

– Berekin hitzegin behar nuke –esplikatu zuen Susanek; baina Amalia ttonttortu zen orain, mora begira. Pasiloan ziren bi emakumeak. Amalia ez zela eroso sentitzen, somatu zuen Susanek.

– Ez dakit nahiko duten – esan zuen Amaliak.

– Beharrezkoa da ordea – insistitu zuen Susanek–. Eurek zer pentsatzen duten jakin eta...

Amaliak eskuak izerditzen hasi zitzaizkiola nabaritu zuen.

– Bien, esango diet! –eta «neregatik!» esan nahi zuen ajola gutxiko keinu bat egin zuen.

– Nik bihar deituko dizut... – saiatu zen Susan.

– Bai, bai. Nahi duzularik etorri.

Etxetik bidali nahi zuela, inpresioa izan zuen Susanek.

– Eta zu – esan zion, halere–, bihar goizean, udaletxera azaldu.

– Bai! – esan zuen Amaliak, «lasai egon!» adieraziz bezala.

Hura atea irekitzera zihoala, bere hankapean kras, segur labezomorro bat mazpildu zuela

aditu zuen Susanek. Sarrerako ilunean apenas elkar ikusten zutela despeditu ziren.

Bakarrik gelditu zelarik, sukaldeko argia itzali eta leihoraino irristatu zituen zapatilak Amaliak. Handik begiratu zuen, udaletxeko neska hura pareko espalotik behera urruntzen ikusiz. Bai, eraman egingo zizkioten alabak, hori nahi zuten –eta berak bakarrik egin beharko zuen monstruo harekin burruka. Non ote ziren, neska deabru haiek? Goizean ez zituen ikusi. Etorriko ote ziren bazkaltzera etxera? Ez ahal ziren etorriko behintzat, galerazi baizik ez zioten egiten eta. Bapatean mihia dorpe, eztarria lehor somatu zituen.

MONJAK ETORRIKO ZIREN

Gaua zen oraindik andre xarmanta ezpondatik atera eta A.ko herrira zeraman bideari lotu zitzaionean. Bide bazterrean, ihi tartean, txakur bat antzeman zuen hilik ilargi betearen argitan. Irribarre murritz bat dibujatu zen andre xarmantaren ahoan.

Sanchez familiaren txabolaren atzean hasten ziren hormigoizko blokeak. Hamaika etorkin heldu zen bizitzera, hogeitamarren bat urte lehenago, etxe zatar, griskara haietara. Isilik korritu zituen andre xarmantak hango kale meiharrak, gaizki aparkatutako kotxeak eta espaloietako zuhaitz iñulak ebitatuz. Inor ez zen ageri.

Laster belarrik gabeko eremura heldu zen. Haren gainean altxatzen zen egoitza.

Hantxe bizi zen Gregorio, bere aspaldiko laguna. Leihoa ere ezagutu zuen aurki: hirugarren pisuan zabalik zen hura, gortina haize xirrintak higitzen bait zuen. Gau bero samarra izan zen, izan ere, hura.

Gregoriori lagun guztiak hil egin zitzaizkion. Horregatik, sarritan egiten zuen lez, haiei bisita egin asmoz, kanposantura abiatu zen iluntze nabarrean. Oso bide laburra zen egoitzatik hara. Umeak jolasten ziren parke txiki bat zeharkatu behar zuen gainera, beti gustatu zitzaiona.

Kanposantuan, lurperatzaileak, gizon handi, xalo bat, utzi egiten zuen hildakoen artean bere kasa ibiltzen. Urratsek, arrats hartan, Txomin, bere anaia, gurasoengandik ez urruti lurperatuta zegoen lekurantz eraman zuten. Kanposantuko bazterrik tristeena zen hura Gregoriorentzat.

Iñaki Lekuona, bere baserriko aberiak konpondu izan zituen linterneroaren tunba gainean eserita, pare-parean zeukan Txominen hilkutxa. Hilkutxa sinple bat zen Txominena, zenbait ertzetan akats batzuk zituena baina, aski txukun eta dotorea.

Orduan, poliki-poliki, tapa altxatu eta Txomin jeiki zen, muxin, ubel, begirada eroria.

– Hola – esan zion Gregoriori, apalki.

Eta Gregoriok itzuli zion saludoa.

Txomin nahiko altua zen eta, lurpeko egonaldi luzeak arras moteldu bazuen ere, bera baino indartsuagoa segitzen zuen izaten. Aldiz, buruko ahulezia zuen. Lili xirpilen artean jarri zen, otzan, txakurño bat bezala, paisajeari begira.

– Aita hil duk – aditu zion Gregoriok bere buruari esaten.

– Aita? –eta Txominek nekez konprenitzen ahal zuela zirudien.

Eta gero, beste noizpait egin zuen bezala:

– Ama ere hil duk –esan zion Gregoriok.

Eta Txominek tristura infinitoaz begiratu zion orduan.

– Ama? –galdetu zuen, ahots hariño batez. Gero bere baitara bildu zen, uxkurtuta, atzera.

– Eta hi, zer moduz hago? – galdetu zion Gregoriok, baina ez berak, baizik eta han, bere anaiarekin ari zen Gregorio estraino hark, Txomini hospital psikiatrikoan bisita egiten ziona.

– Ongi –esan zion, ixilkara, anaiak.

Baina orain malko bat labantzen ari zen Gregorioren masailean.

– Nik ebita nezakean –esan zion anaiari.

Baina Txominek ez zuen aldatu espresioa, begi itxidiki bat egin zuen soilik.

Bai, berak ebita zezakeen.

Errenteriko errepideko tunel haietako batean, lanean ari zirela biak elkarrekin, gertatu zen ixtripua.

Txomin –bera baino hiru urtez zaharragoa zenaedan xamarrik sartu zen zulora goiz hartan. Gregoriok pentsatu egin zuen, lan egiteko kondizioak ez zirela haiek, baina, patroiak anaia bota zezan beldurrez (anaia baino, egia esan, gurasoek hartaz har zezaketen disgustoa gogoratuz), sar zedin galerazi gabe, aitzitik animatu egin zuen. «Main, ezin!», zirikatu zion.

Geroxeago, barrenoa sartutako lekuan jo behar izan zuen mailuaz Txominek, harri kozkor bat sartu bait zitzaion buruaren erdian – handik erotu bait zen.

Hura hala izan zela ez zion inori kontatu.

Hartan, alboetara begiratu zuen, eta hildako samalda bat ikusi zuen inguruan. Hantxe zen ama zaharra, bere dortoka espresioaz. Hantxe aita zaharra, bere begi hantuez. Anita, arreba, anteoju lodiekin. Koadrilako batzuk ere ikusi zi-

tuen, jakinminez denak. Iñaki linterneroak ere, tunbako xulo batetik begiratzen zion irribera.

Ondikoz denak hil ziren. Aita hil zen, ama hil zen, gero anai-arrebak eta andrea hil zitzaizkion.

Andrea, Jesusa, biak baserrian zirela hil zitzaion.

Zenbatetan pentsatu izan zuen, ze zoritxarra izan zuen, bera ez hiltzeaz lehenago.

Izan ere hura hil eta oso laster, bere semealabek zaharren egoitza hartara sartu bait zuten. Hainbeste nahiko zukeen, baserritik atera gabe hiltzea, lurraren usainean...

Egoitzan, hasieran, beheko solairuan zelarik, paseo txiki batzuk egiten zituen egunero Gregoriok: inguruko soroak ikusten zituen, eta beste zahar, edo baserritarrekin mintzatzen zen, eta patatak eta letxugak eta belarrak zer-nola haztten ziren betesten ematen zuen denbora.

Gero berriz –Gregoriorengan ikara sortzen zuten korridore, aszensore guzti haiek–, bere osasunak okerrera egin zuen eta bigarren solairura igo arazi zuten. Handik nekezago atera zite-

keen, ordu asko igarotzen bait zuen ohean, petxuko min haiekin.

Egun batean, haren bizitzaren egunik tristeena izan bait zen, hirugarren solairura eraman zuten, kamila batean. Inor ez zen handik, bazekien ederki, bizirik irteten.

Kanposantuko lurraren usaina adi zezakeen handik, soilik, hegoaize egunetan. Eta – adiskide denak hantxe ehortzita zeuzkan– hara joaten hasi zen orduan...

Hildakoak ziren, bestetan, berari bisita egiten ziotenak. Paretetan azaldu ohi ziren eta, ezin mugi zitekeela ikusirik, batzuek burlazko keinuak egiten zizkioten. Jesusak ez. Jesusa begibera eta zotinka azaltzen zen, armairuaren atean. Behin, Jesusak, oroitgarritzat, bere hatz erakuslea moztu eta kutxa txiki batean utzi zion, mesanotxeko kajoian.

– Ez izan gaiztoa, eseri zaitez – esan zion, pittin bat asaldatu bait zuen, Txominek orduan.

Umetan hala esan ohi zion Txominek, amaren azentoa irudikatuz.

Gregoriok, Txominek oso gauza politak erakusten zizkionez, aulkian jarri zen.

«San Franciscoren bizitza» liburua zekarren Txominek. Hartan erakutsi zion Gregoriori irakurtzen.

Barrutik ordea, hutsik zegoen liburu hura. Koaderno bat zen, Gregoriok bete beharrekoa. Gregoriok lapitza hartu zuen, Txominek deskribatzen zizkion letrak idaztekotan:

– Egin makiltxo bat goitik behera, ondoan beste bat iguala, eta beste txiki bat biak elkartzen dituena; orain egin mendi altu bat alderik alde bide bat daukana; orain egin gizon luze bat bere txapel zabalarekin; orain egin ilargi betebetea; orain egin gizon tripadun bat hanka okerra duena.

Txikitan horrela egiten zuten. Gero Gregoriok idatzitakoa irakurtzen ahalegintzen zen:

– Hatxe, a...

Eta Txominek laguntzen zion:

– Ha...

– Te, o, erre...

– Tor.

– Ha-tor

HATOR, esan zion Txominek.

Laster monjak etorriko zirela, gogoratu zen Gregorio. Hankak eta eskuineko eskua ohera lotuta izaten zituen baina, hazka egiteko libre uzten zioten ezkerrekoaz, lapurtu eta almohadaren azpian jasota zeukan labantxoaz sokak moztu zituen.

Esfortzurik gabe jeiki zen ohetik. Ez zuen minik sentitzen, baizik eta arintasun estraino bat. Txomin, anai ahularekin joan gogo zuen erabat.

Gregoriok ez zuen dudarik egin, salto egindakoan.

Airearekin topo egiterakoan ireki zituen begiak, doi-doi pareko espaloian soineko luzedun andre xarmanta ikusteko.

BAT GUTXIAGO

Zorabiaturik esnatu zen Maria. Josune, bere ahizparekin egin zuen amets. Hotel handi bateko marmolezko lurraren gainean zegoen etzanik, eta tipo bat izorratzen ari zen, eta beste gizon errenka bat zeukan zain, berarekin egiteko larrutan. Josune –egiaz hala zegoen eta– bost hilabetez zegoen haurdun eta hura ederki nabari zitzaion etzaniko jarreran, eta halaz ere, gustoz ez bazen, egon-harriz eta lazokeriaz behintzat onartzen zituen gizasemearen oldarrak.

Joan zen urtebete hura – gogoratu zuen Mariak, bere ohean, begiak piska bat zabalduz– oso txarra izan zen Josunerentzat. Lehengo urtean, Rafa, bere nobioak utzi zuen eta, denbora berean, lan egiten zuen jatetxetik azalpenik emateke bidali zuten. Etxean, orain Maria zegoen ohe ber hartan, bere baitan bildurik, depresioak jota, ezertarako ilusiorik gabe egin zuen Josunek bolada luzea. Gauean ez zuen lorik egiten, eta egunean ohetik jeikitzeko ez zuen indarrik izaten. Gero, udaberrian, hospital psikiatrikoan egin

zuen aste pare bat eta gero, handik aterata, herriko San Pedrotan uste zuen berak, Jose, igeltsero txaparro hura ezagutu zuen eta – hogeitabat urte zituela– harexekin ezkondu eta, orain, haren umearen zain zegoen.

Josuneren falta nabari zuen Mariak etxean. Lehen gela hartako ohe bakarrean elkarrekin lo egiten bait zuten, eta sarritan batak besteari beren arazo eta kontuak esaten zizkioten. Bera baino urte t'erdiz gazteagoa zen Josune, eta izakeraz aski diferente, bera xakerre zen bezala, hura epel bait zen eta betizu. Alabaina, amaren aurrean, gauzak ongi eramaten asko laguntzen zion, lasaia bait zen eta ez zen edozein alferrikako eztabaidatan bera bezala haserregorritzen.

Egia da, aspaldi ez zuela berak ere amarekin diskutitu. Hondarreko aldian, hilabete bat lehenago, goiz batez, amak egozten zuen kiratsak asaldatu bait zuen, «bainatu beharko duzu ba noizpait ere ama» esan ziolako, ama sumindu zen «utzi bakean eta gustatzen ez bazain aldegin ezan etxetik!», eta bera ere, erantzun haren indarraz harriturik, fuerte mintzatu zitzaion, «ito zaite zeure kakatan gogo baduzu!» «Bizitza zer

den ez dakin-da», esan zion amak, begirada galduaz, «hiri ere etorriko zain...» «Saiatuko naiz behintzat horretara ez iristen», ihardetsi zion berak – ordea amaren azken hitz zorrotz horiek barneraino sartu zitzaizkion, maleski: «Hiri ere etorriko zain...»

Harezkero ez ziren deusetarako mintzatu. Amak zernahi txorakeria egiten zuen: bakarrik hitzegin, kubiertoak beren kajoitik atera eta trapu batez, orduak joan, orduak etorri, garbitu – atzo goizean berriz, makurrago izan zen. Bera lanera joan bait zen Donostiara, ama bakarrik gelditu zen etxean. Goizerdi partean ez zen ba hasi leihotik behera traste botaka: eltze handia bota zuen, eta pasiloko eskultura egurrezkoa, hautsi zena noski, eta bere arropa batzuk... Baten batek udaltzainei abisua pasa zien eta haiek etorritakoan ama berriz orruka hasi zen eta negarka, kosta bait zitzaien lasai araztea. Hitz-motela zen udaltzain batek ziurtatu zion berari, ama hospitalera sartzeko behar zen ordena gaur goizean etorriko zela.

Ez zeukan eta segitzerik horrela. Bi urte lehenago, amak bere burua sukaldeko gasaz hil nahi

izan zuelarik, eta gero ihesi joan eta gauean etxera itzuli zelarik, desberdina zen. Orduan Josune ere bazen etxean. Episodio hura penagarri izan zen, baina penagarriago, ez bait zuten hospital psikiatrikoan ingresatzerik lortu: segituan etxera itzuli arazi zuten, hainbat medikamentuz kontrolaturik. Eta etxean, hark nahi zuena eginez, hala segitu beharra... Estu sentitzen zen Maria, eta beti, zela komunera, zela sukaldera, zela telebistara joan nahi zuelarik ere, amaren gela paretik pasatu behar zuen, ama ohean egoten bait zen, ilunpean, dena –zer zen, dena?– ikusten zuela –eta aurki, eguberrietarako, Dolores, hirugarren ahizpa, zaharrena, Santa Agedatik igual etorriko zen, urtero bezala: hogeitasei urte zituen baina ez zekien hizketan, soilik irribarre gexala egiten zuen, eta berak ahizpa hura anima erratu bat zela sentitzen bait zuen, ebitatu egiten zuen baina gauean, ohean, elkarrekin lo egin behar zuten eta Dolores dorpeki arrimatu egiten bait zitzaion, berak aldamenean animali nazkagarri bat zuela inpresioa izaten zuen, ezin zuelarik eraman...

Orduan, bapatean, burua kolore eta irudi fantastikoz bete eta nahastu egin zitzaion. Begiak itxi zituen, esku biez oheari eutsiz – berriz ere gaizkia, fondorik gabeko zuloa, eta zirkulo zabal bat antzeman zuen urruti non ondo egon bait zitekeen, eta bera barruan zen, beste zirkulo estuago batean, nondik ezin zen aterabeldurra sentitu zuen, ez bait zuen berak nahi, ez zuen berriz hospitalera joan nahi, hogei urtekin han izandu zen eta higuin zituen hango jendea eta hango usaina eta gaizki uzten zuten pastila txiki haiek; ez, haietarik ez zuen gehiago hartu nahi; oso gaizki uzten zuten... Baina jeiki egin behar zen...

Bere burua behartuz maindireak apartatu zituen eta ohean eserita gelditu zen Maria. Komoda gainean pilatzen ziren zimurtutako arropa zikin eta garbiei begiratzea ebitatuz, silan, kulero eta atorra batzuren gainean zegoen jertse gorria eskuratu eta jantzi egin zuen kamiseta gainean. Ile luzea zuen, pentsatu zuen, eta egun batetik bestera zikindu egiten zitzaion baina ostiraletan bakarrik garbitzen zuen, «maizago ez da-ta komeni», esaten bait zuen Amaiak, ilea-

paindegikoak –eta gainera, total, astegunetan zertarako garbituaaaj, begiratu zen ispiluan hankak zapatiletan sartuz, zertarako, bai, neskame lan puto hura eta gero etxeko historiak...

Ileapaindegi-akademia utzi zuenetik –Amaia, enkargatuarekin, beti argudioka ari zen, eta beste ikasleekin ere ez zen batere ondo moldatzen–, harezkero, zenbat etxe korritu ote zituen, neskame bezala? Dozena bat bai –eta, zein gutxi iraun zuen horietako bakoitzean: bota egiten zuten, gehienetan, hasi eta gutxira, gauzak ez zituelako egiten beraien gustoranagusi nazkagarriak, jende ustela eta harroa, poltsikoan sos batzuk zituztela jaio zirelako berak baino gehiago zirela uste bait zuten! Azkeneko udan, Amarako etxe batetik, arropa batzuk –bai, alkandora txuribeltz hura, hain zuzen ere– ohostu zituelako denuntzia jarri eta bota zuten agudo. Hurrengoa, oraingoa, nekezago suertatu zitzaion. Eta zin egin zion bere buruari, handik ez zutela botako: beldur handia hartu bait zion, aspaldi, lanik gabe gelditzeari, horrelako aldietan, lehenago, asko sufritu bait zuen, negar asko egin zuen, beste zereginik ez eta etxean, ama ez ikusteagatik bere

gelan itxita egon behar zuelako. Orain, etxeaz jabetu zen isiltasun espantagarri harekin, hilabete bat ezin jasango zuen, horregatik oraingo lana –nahiz eta batzutan zaintzen zuen ume negarti erretxin hura bi eskuez jaso eta lurraren kontra zapartatzeko gogorik izan– ordura artekoak ez bezalako arduraz betetzen zuen, umea begiratu ezezik, eta nahiz eta beti ez eskatu, eskoba eta estropajo lanak ere egiten zituela egunero.

Urrats bat emanez aurrera bere gelako leihoa ireki zuen Mariak eta gero, ohea airera zedin, oheko arropetatik, manta eta maindireetatik beheraka tiratu zuen. Gero berriz ere ispiluaren aurrean paratu eta silan eseri zen nekez, bere buruari begira. Bi eskuez igurtzi zuen ilajea, eta lepoaren bueltako haragi belaskak ukitu zituen: aspaldi gizentzen ari zen, gaizki jaten zuelako –fundamentuz jan beharrean askotan, txokolate eta boilo bat edo magdalenak ekartzen zituen eta, irratiko musika entzuten zuen denboran, haiekintxe egiten zuen afari-merienda, ohetik higitu gabe. Gutxiago, eta hobeto jan behar zuela bazekien, baina borondate handia behar zuen hartarako eta gero, ilusio piska bat eduki edo...

Ama eraman eta beste inoiz itzuli araziko ez bazuten behintzat, pentsatu zuen, James Dean-en posterrari begira: hospital psikiatrikora sartu eta beste inoiz aterako ez bazen, hilko bazen aurki... Bera gauza sentitu zen, instantean, situazio berri hari frente egiteko, bera bakarrik, inoren beharrik ez bait zuen, etxe zahar hura utzi eta beste bat alkilatuko zuen, bilatuko zuen, edo Errenterira joango zen bestela, han bizi bait zen Lurdes, bere lagun zoro bat arestian gurasoen etxea laga zuena, haren koadrilarekin ibili zen inoiz eta bere moduko jendea zen, jende jatorra – eta hortaz Dolores ez etortzeko ere aitzikia erraz bilatuko zuen, eta familiako inor ez beste inoiz ikusi, Josune izan ezik, hura bai ikusi behar zuen, gaur bertan joango zitzaion edo deituko zion arratsean, hura beti gizona etorri baino lehen telebista ikusten egoten zen eta – ordea, izango al zen bera hartarako gauza, hain zen erraza ez inora ateratzea eta bere buruarekiko konfiantza aldi haiek hain izaten ziren iheskorrak – begi ondoko ximurretan zentratu zuen bista, eta handik begi-begietara pasarazi zuen, eta duda egin zuen, betiko duda, gaitza barruan ze-

ramala uste bait zuen seguru, hala bait zeramaten familiako denek, aitona ezkeroz inor ez bait zen libratu, alkoholak jan zuen aitona, berrogeitaka urtetan atake batek hila, eta amonaz, amarez amaz, ez inork ezer esaten inoiz, puta izan zeneko susmoa, eta aita, aita umezurtza, berak gogoratzen ez zuena, Josune jaio zen urtean hil bait zuen bere burua, Errekalden Doloresek behin seinalatu zion pinu batetik txintxilikatu omen zen, hartan hasi bait zen, uste zuenez, amaren erotzea, aita biziki maite behar bait zuen eta orduan hasi zen moteldu eta lainotzen – gauza izugarri haietarik ihes egin ote zezakeen orain, ez ote berandu, ez ote ezina, bere begiak txabal-txabalik ikusten ari zen ispiluan eta fondo-fondoan, pintta ilunekiko berdeaz eta beltzaz barnera, bueltarik ez zuen eromenaren trazak antzematen ari zen, aspaldiko bisioa, azken urtetako ametsek eta errealitateek konfirmatzen zutena – begiak itxi zituen fuerte, eta ahaleginak egin zituen heriotza gogoratzen zioten irudi haietarik aldentzeko, eta gaurko zereginetan konzentratzeko, hori bait zuen ihesbide bakarra: goizean erosketak egingo zituen, dendariarekin

kontakto llaburra, amari buruzko galderak ebitatuz, noski ez zion ezer esango, ja inork ez zion inoiz ezer esaten, gero segituan itzuli eta sukaldeko lanak egingo zituen – orduan, ama somatu zuen sukaldean, kasik hobeto bere logelatik irten ez balitz, sukaldeko irratia piztu zuen, hark ez zekien noski gaur eramango zutenik, pena arrasto bat sentitu zuen Mariak, baso bat esne hartuko zuen harekin eta segidan aterako zen, erabaki hartaz jeiki zen silatik eta galtza txuriak bilatu zituen, non sartu zituen?, komoda gaineko arropak besarkatu zituen eta ohe gainean zabaldu zituen, han ziren, zimur-zimur eginda, aldrebeski jantzi eta bere gelatik atera zen.

Muturra garbituta sukaldera sartu zelarik, ama bere txokoan jarrita nabaritu zuen, erdiagurtu zuen baina harek ez zion deus erantzun, bere basoa jasoz bezperako esneaz bete zuen eta irratia instantean ematen ari zen notiziari erreparatu zion: «Goizeko zortzirak baino lehentxeago, bere lanera zihoala kotxez, polizia nazionaleko tenientea zen Miguel Palomino Palacios hiru gaztek tirokatu eta hil dute Donostian...» Pelos, bere lagunarekin gogoratu zen Maria: le-

hengo astean ikusi zuen, bere leihotik, poliziek herria hartu zuten eta hantxe, kantoi batean Pelos atxilotu zuten eta eskuak paretaren kontra zeukaten – bat etorri zen orduan, agintzen zuena behintzat, eta amorru bizian jo zion Pelosi barrabiletan ostikoa eta «corre, corre!» esan zion beste batek eta hura makur-makur eginda zutitu zelarik bizkarrean danba! danba!, bi tiro jo zioten, marka ederrak utzi zizkioten, eta jendea etxeetatik hasi zitzaien «txakurrak! asesinos! mercenarios!» eta poliziak etxeetara tiroka... «Atentatuaren lekuan hiru kaskilo Parabellum bederatzi milimetrotakoak...» Mariari, orduan, ez bait zekien nola, barru-barrutik atera zitzaion komentario sinplea:

– Bat gutxiago!

Espero ez zuena, amak erreakzionatu zuen, parrezka hasi bait zen, parre eroa harena, akaso Mariaren hitz sinple haiek nolarebait grazia egin ziotelako, akaso gelditzen zitzaiola uste zuen azkeneko alaba hura mintzatzen entzuteagatik soilik – zena zela ere, parre haiek mindu zuten Maria eta zurrut egin zuen bere basotik, esnearen freskoa nabarituz ahoan –orduan somatu

zuen etxe inguru hartan ohizkoa ez zen baina nondipait ezagun zitzaion auto baten ate baten hotsa eta, leihoko gortin xarea korrituz, kanpora behatu zuen, eta udaltzainen autoa ikusi zuen: hitz-motela zen udaltzaina, eta inoiz ikusi ez zuen beste gizon adintsuago bat jeitsi ziren autotik eta beren ataririantz abiatu ziren.

IHESBIDE TIPI BAT

Alkate jauna:

Izenpetzen duen udaltzain honek atseginez jakinarazten dizu:

Joan den ostiralean, Minguez eta Zubillaga zinegotzien eskaeraz, paisanoz jantzita, zerbitzu berezi bat burutu nuela.

Zerbitzua gaueko 21.00tan hasi nuen eta Asunción Roa Goñi prostituzioan aritzen zela konprobatu nahi genuen.

Hartaz, Minguez zinegotziarekin, beronen kotxe partikularrean, Kale Nagusira, Lekuona funeraria dagoen horretara, abiatu ginen. Gau askotan, 21.10 inguruan, SS-8150-S matrikuladun Citroen GX batek hartu egiten bait zuen aipatu emakumea.

Oraingo honetan berriz, bestela egin zuten, bere etxera, Lasarte kaleko bigarrengo portalera, joan bait ziren hartzera. Beste bi emakume zihoazen kotxean, eta gizonezko bat, bolantean. Hartan hasi genuen segimendua, eta Ordizira ailegatu ginen, «Nadina» izeneko klubera.

Denbora puska bat pasatzen utzi eta gero, aipatu klubera sartu ginen biok eta Asunción gizonezko batekin hizketan ari zela ohartu ginen.

Ikerketa bukatutzat jo eta herrira itzuli ginen.

00.06tan bukatu nuen zerbitzua, zeina ordu estra moduan ordain dakidan eskatzen dut, zerbitzu ofiziala 22.00tan bukatzen dut eta.

Ezagutu eta bidera dezazun jakinarazten dizudana,

Roberto Zulueta
udaltzaina

– Ura!

Zortzi t'erdiak ziren eta berriz ere ez zioten dutxa lasai buka zezan uzten –sukaldean, amak ireki zuen noski kanila harrikoa egiteko eta dutxaraino ur xirripa hotza iristen zen soilik. Ez zioten kasurik egin.

– Ura!!

Presioa piska bat igo zen, ez nahikoa ordea, apenas epeldu bait zen ura – orain beheko pisukoak arituko ziren iturriekin jolasak egiten. Hotzikara batek, urarekin batean, korritu zuen Asunen

bizkarra –besapeak eta alualdea aklaratu zituen eta kanila itxiz toailarekin ile beltza igurtzeari lotu zen azkar. Ivan txikia, negarrez hasi zen pasiloan. Ondoren Pedrok Angeli ozen entzun zen belarritakoa erantsi zion: «Ez emateko gailetarik Ivani!» «Ez jo umeari hola!», kejatu zen amona. «Abusatzen dik eta!» «Nik ez dut abusatzen!» «Benga, afaltzera zuek». «Zopa! Ya te vale!», Ivanen ahotsa. Sostenekiko bularrak ikuskatzen zituen Asunek ispiluan, oraindik ederrak zituen, alkandora arrosa jantzi zuen arretaz. Gero sekadora piztu zuen, beti ispiluari begira.

Giro salbaje batean hazten ari ziren umeak, pentsatu zuen. Aitak hiru urte zeraman barruan, berak berriz ezin zien denborarik eskaini, eta bere anai-arreba eta gurasoek ez zituzten soportatzen – beharrik hurrengo astean Anjel internadora zihoan, Ivanekin bakarrik errazago izango zitzaion. Gero, ezpainak gorri bizi batez pintatzen hasi zelarik, Rodolfoz gogoratu zen: gaur harekin egin bait zuen amets! Young Playko denbora haiek oso urruti zeuden horregatik –eta halere Rodolfo, Rodolfo bakarrik, gogoratu egiten

zitzaion, behin edo behin, oraindik. Galdutako aukera, aukera bakarra...

Iraila hasi da

Gelako kristala hautsita dago

Negua baino lehen konponduko dut

...Bizitza gogorra da.

Bederatziak laurden gutxi, gelako ohean eserita Asun, Ivanek, lau urte, sukaldetik, ez zuela gehiagorik jango, Anjelek, bederatzi urte, amenazoka, etxetik aldegingo zuela, amonari esker oraindik, aitona berriz «Ongi etorri»n mozkortzen arituko zen – eta bera, Rofolfogandik bain urruti, putakume batek bortxatu zuelako –min zaharra uxatu nahian, eskua luzatu zuen, ohearen somierraren metal hotza ukitzeraino...

Ezpainetako barra eta tabakoa jaso zituen boltsara eta sukaldera joan zen. Pedro, amona, eta bi umeak ziren han –beti, beti lotsa hura, Anjelek ez zekien ezer, «lanera noa», larunbatetan bezala Donostian umeak zaintzen zituela uste zuen hark, «eman musu bat», amarekin berriz ez zuen apenas hitzegiten, ez halakoetan, «astelehenean eskolara noa», Ivanek, «a bai? Ze ongi!», alegria txinparta, gero adio, ze desasosiegoa.

Antonio, kabroia, zain zeukan portalean, kotxean, Anabel eta Kris ere bai. Azken honen ondoan, atzean eseri zen Asun. Krisek beltzez zeuzkan pintatuta azkazalak eta bere ile beltz-beltzarekin oso ongi egiten zuten ilargi erdizko urre koloreko belarritakoak zekartzan. Saludatu ziren eta gero:

– Ikusi, arratoia! –esan zuen Antoniok, kotxea abiarazten zuelarik.

Asun eta Krisek ez zioten jaramonik egin. –Barrio zikinak! – esan zuen Anabelek. –Zikina, zeurea, aizu! – Ez dinat deus esan!

Anabel zaharra Intxaurrondon bizi zen, goardia zibilen koartelaren ondoan.

Gero Krisek, bajuagotik, Asuni: –Zer moduz katxorroak?

Kris ederra zegoen, fijatu zen Asun. – Hortxe, traste-traste eginda.

Bero egiten zuen, isilik egoteko giroa. Urnieta baino lehen, atzera gogorapenetan murgildu zen Asun.

Hamasei urte zituen berak amak etxe hartara bidali zuelarik. Aieten zen, matrimonio gazte bat ume ttiki batekin. Goizeko zortziretan sartu eta arratsaldeko seiak arte dena egin behar izaten zuen Asunek: umea zaindu, jana eman, etxeko goiak eta beheak astindu eta garbitu, sukaldekoak egin – gizonaren bazkaria, eta denen afariak, eta arropak... Hogei mila pezeta pagatzen zioten hilabetean, ezer ez, baina amari oso ongi iruditu zitzaion eta berak obeditu behar zuen. Hasieran ongi eraman zuen etxe hartako martxa, segituan jarri zen.

Lagunekin pote batzuk hartuta, gehienetan bero-bero etortzen zen gizona egunero bazkaltzera, andrea lanean ari zen denboran. Bulego batean lan egin behar zuen, eta gero hangoxe lagunekin moxkortu behar zuen, etxera behintzat bere kotxe tzarrarekin ailegatzen zen eta. Hogeitamabost urte izango zituen eta dotore, txukun eta atsegina ere bazen.

Hilabete-hola eramango zuen lanean, eta umea, oinez ikasi berria, eskaileraren erreilanora atera zitzaion agur esatera, eta gizona haren atzetik, andrea sukaldean zelarik, eta orduan,

biek, gizonak eta, eskaileraren ixkin batetik, berak, elkarren begiradari eutsi zioten, eta berari orduan aurpegia zeharo gorriztatzen zitzaiola sentitu zuen... Izaten zituzten horrelakoak, begirada biziak, deskuidozko rozeak... Biek bakarrik ezagutzen zuten jolas arteko konplizitate batera iritsi ziren, emazteak – hura etorritakoan aldegiten zuen Asunek etxetik– susmatu ere egiten ez zuena.

Beste behin, denak etxean ziren arratsalde batean, bera umeari merienda ematen ari zitzaion eta, andrearen eguna zela eta, gizonak xanpan botila bat ireki zuen eta kopa bana zerbitu zuen –gero berriz, ustekabean bezala, gizonak Asunen kopa jaso zuen, eta berak edandako tokian pasa zuen behatza, eta Asuni, emaztea noski ohartuko zela, iruditu zitzaion, baina gizona lasai ari zen eta gero kopa hartatixe edan zuen, berari begira... Gero beste batean, eguerdiz, gizona ohi baino kaskartuago heldu zen etxera eta bera baxerak egiten ari zen eta, hura gibeletik inguratu zitzaion eta «Asun, zuk ba al duzu nobiorik?» Orduan berak bapatean distantziak markatzeko beharra somatu zuen.

– Zer ba? –erantzun zuen idorki.

Bazuen nobioa, Rodolfo, batzutan Young Playn eta bestetan paseoan ikusten zuena, berarekin amodioa egindako mutil bakarra, kotxean aritu ziren eta asteburu batzutan.

– Aritu al zara behin ere?

Petxuaz bizkarra ukitzeraino arrimatu zitzaion.

– Umeagana noa – eskapatu zen Asun, eta negarrez lehertzeko zorian izan zen arratsaldean.

Orduan hasi zen pertsekuzioa. Gizona ardoak erreta iristen zen etxera eta orduan eta ausartago azaltzen zitzaion. Asun berriz, beldurrak hartuta. Eutsi egin behar ziola oso garbi zeukan.

– Probatu gabe al zaude? – zirikatzen zuen hark–. Suabe egingo dizut...

Kanpoko itxura ongi zaintzen zuen, beti ederki afeitatuta, beti alkondara txukunaz, beti zapatarik onenez... Barnetik ordea, ardo eta ustel kiratsa zerion, eta neskak lehenbailehen lana uztea deliberatu zuen. Aieten bertan neskame ari ziren beste neska batzurekin komentatzen

eta, Antiguoko etxe batean beste lan nahiko majo eta seguru bat atera zitzaion.

Etxean esan berriz eta debekua. Zeukan lan hura ezinhobetzat zeukan amak eta, berak ez izaki gauzak nola gertatzen ari zirenjazaltzeko etxeko inorekin konfiantzarik nahikoa, eta adinez gazte izanik noski, amak segitzeko agindu eta hari jarraitu behar izandu zion.

Goizean joan Aietera eta ja beldurrez egoten zen eguerdiaren zain, gizonak bazkaltzen zuen artean bera salan eta hura salaratzen bazen berriz sukaldera paseaz, edo paseatzera ateratzen zen umea siestatik goizago iratzarriz.

Trumoi egun batean harrapatu zuen. Astelehena zen eta Asun asteburu gogor batetik itzulian oso nekatuta zegoen eta gizona ailegatu baino lehen salako tresiloan lokamustu zen, ez zuen ate hotsik aditu eta konturatu orduko gizona gainean zeukan, ahoa ahoaren kontra, haren eskuak bere gorputzean indarka. Ikaratuta, borroka egin zuen, hanka eta besoez, eta garrasi ere bai, baina gizona fuerteagoa zen eta esku biez heldu zion eztarria eta zemai egin: «Ez oihurik atera». Gero, bera paralizatuta zegoen eta,

biolentki, denak erantzi eta lurrean bortxatu zuen.

Bi egun pasa zituen joan gabe lanera, gaixo seinalez, oso larri, amak deitu zien nagusiei alaba onezik zegoela eta barkatzeko esanez, hirugarrenean behintzat, amaren beraren presioaz, dardarizo batean, zazpi t'erditako autobusean beti bezala, Aietera joan zen. Hiru egunetako lanak, arropak, ontziak, hautsak, pilatuta zeuzkan eta gogor aritu zen goizean –eguerdirako berriz, gizona heldu zelarik, bera zeharo mindurik eta, nora sar ez zekiela, hura berriz, apal-apal azaldu zen, ez bait zion ezer ere esan, soilik bazkaria bukatu zuenean kafea eskaini zion –eta berak ez zion begiratu ere egiten. Handik hilabetera berriz, bigarrenez saiatu zitzaion, eta berak, kontra egin bazuen ere, kemen gutxiz, aldez aurretik bataila galduta zeukala jakinik egin zuen. Handik aurrera...

Eta Rodolforen erreakzioa, maitasun gau batean, ilargiari begira biak belazean etzanda zirela, kontu hura, zeukan lagunik onenari kontatu beharrez, esan ziolarik: haren haserrea, baina-ta haren indiferentzia itxura, eskuz lotuta zeuden

eta bapatean bakarrik atxeman zuen eskua –eta gero, haren elkarrekin segitzeari ukoa, haren betirako agurra...

Zalantzati, kotxearen ateko txaparantz luzatu zuen Asunek eskua eta haren hotza sentitu zuen hatzez. Ihesbide tipi bat zen, metalezko natura, bere suaren oreka, indarraren emale...

Haur bat egin ziolarik putakume hark, amak orduan egin bait zuen orru eta lamento, etxe hartatik despeditu zen eta geroago, Anjelek bi, eta berak hogei urte zituela, beste lapur harekin ezkondu zen... Gero etorri zen Ivan, eta hura papilak utzi gabe zegoela gizona droga roilo bategatik makora sartu bait zuten, bizitzera atzera gurasoen etxera itzuli behar izan zuen, bi umeekin oraingoan. Aitaren pentsioa 30.000, ama Donostian zine-garbitzen aritzen zen 7.000gatik, ahizpak bi etxe garbitzen zituen egunero, 15.000, gero Pedro, anaia, paroan zegoena, eta etxean ezer uzten ez mena, eta Luismi, subnormala... Etxe hartatik alde egiteko beste diru aterako balu! – udaletxean eskatuta zeukan suben-

tzioa, pisu bat errentan hartzeko, 25.000ko bat ere begiz jota zuen Zikuñaga partean, Papelerako hautsak tragatu behar baina behinipehin, umeek jolas egiteko tokiak, udaletxeko ofizinak garbitzen zituen lagun batek halako bat hartzeko seguraski eman egingo ziotela subentzioa, komentatu zion – ez bazitzaien behintzat klub lanaren berririk iristen...

– Gaur ezagutuko dun –esaten zion Krisek, zalu-zalu–: lehengoan holandes bat ezagutu ninan... ezagutzekoa! Madrilera zihoala eta gaur etorriko zela esan zidanan.

– Holandesa! Zertarako nahi dun hik holandesa!

– Denetarik...! Egun batean, Holandara joan behar badugu...

– Ah, hori bai! Direkzioa eskatu nion!

– Bere kamioian bizi diren horietakoa dela uste dinat.

– Esan, eramateko hemendik! –Kamioian? Mareatuko natxon! – Gaixoa!

Hamarrak aldean utzi zituen Antoniok «Nadina»ren aurrean, eta Krisek keinu itsusi bat eskaini zion, kotxea abiatu baino lehen. Klubera sartu-

takoan, Anabel gora joaki zen, Asun eta Kris berriz barrara urreratu ziren. Aldo zegoen kamarero, mutil ona, serioa. Kafesne bana eskatu zioten.

– Soportaezina dun! – esan zuen Krisek, Antoniori buruz; baietz, hala zela, egin zuen Asunek imintzio, eta berriz ere bere lagunaren koloreak miretsi zituen, lo

kalaren argitan are ederrago zirenak. Zigarrilo bat eskaini zion Krisi, eta isilik erre zuten, eta isilik edan. Asunek hasperen egin zuen eta bi gizon sartu ziren.

Bertakoak ziren, aspaldikoak. Haietako bat ongi ezagutzen zuen Asunek, ohetik. Begi-klika egin zion sarreratik hark. Bigarren gizona fondora pasa zen, beste neska batengana. Lehenengoa berekin gelditu zen hizketan.

– Bueno, uzten zaituztet – esan zuen Krisek. – Ta, zer berri? – esaten zion gizonak Asuni. Sinpatikoa zen baina, usain txarra zuen. Irriparre egin zion.

– Nik, ezer ez; eta zuk? – Pss!

Wiskiari zurrut egin eta gero:

– Ederrak luzitzen dituzu zangoak, gona motx horiekin.

– Gustatzen?

Ilea ere garbi-garbi zeukan, orain berotasuna nabari zuen gorputzean. Ongi aurkitzen zen. Eme ahotsa zeukan gizon baten musika jarri zuen Aldok. Bi-hiru mahaietatik zigarriloen keak altxatzen ziren. Udazkenez, batzutan, abegikorra zen kluba. Parean zeukan gizonaren desio begirada somatu zuen.

Gero kanpoko atea ireki zen, eta beste bi gizon sartu ziren barraraino. Batek begiratu zion, eta haren aurpegia ezaguna suertatu zitzaion – nondik, ordea, ez bait zen gogoratzen. Eskua poliki-poliki, erotismo kalkulatuaz, barra-ertzeko metal hotza ukitzeraino luzatu zuen.

EZPAINETAN IRRIBARREA

Ja ez naiz ia inoiz ateratzen. Nire gela honetan egiten dut denbora gehiena. Mahaira eserita, edo besaulkian, edo ohean etzanda, irakurtzen edo lo. Orain, osabak hilabetea darama hospitalean eta otorduak ere bakarrik egiten ditut. Osabari bisita egin eta, gainerantzean, ogia eta esnea erostera irteten naiz soilik. Ez dut beste nora joanik. Ez bait dut lagunik, nik. Nahiago dut etxean egotea. Hamasei urte ditut. Ez dela normala, esan liteke, adin honetan, etxetik atera gabe. Baina, nik ez bait dut maite kalea. Jendeak pena ematen dit. Hemen hobeto nago. Ez nago ondo, sufritzen dut, triste nago, baina kanpoan, zer ikusten dut? Izaki errukigarriak, izaki mengelak. Bizitzaren miseriaz inkonsziente direnak, arin mintzatu, erraz barre egiten dutenak. Pena ematen didate. Goizean ikusten ditut, ogitarakoan. Ogi bat, esne bat, eskatzen dut. Sud-ouest, mesedez. Egunkariaren titularrak irakurtzen ditut, notiziaren bat. Espezie triste bat gara, egunero dakusat. Noski, barre egiten dugu. Nire ge-

latik aditzen ditut, inoiz, auzo gazte batzuk barrezka. Edozer aski dute barre egiteko. Nik ez dut barrerik egiten. Irribarre soit bat dibujatzen da, inoiz, nire ezpainetan. Aitak antzeko espresioa dauka, jaso dudan haren argazki batean. Umore onez izan behar zuen egun hartan. Nire aitaz gogoratzeak min egiten dit: badakit haren antza dudala. Hura bezala naiz hits, hura bezala betizu. Fisikoz ere haren iguala naiz, zurbil eta meiharra. Eta hark bezala orduak igarotzen ditut besaulki zahar batean jarrita. Bere zapatilez, bere bata beltzaz, bere gorra madrileñoaz gogoratzen dut. Tximurra zen, akala, asko edan, asko erre, eztul asko egiten zuena. Amak lastimaz begiratzen zion sukaldetik. Ni konturatzen nintzen, neure silatik, begirada horietaz. Seme bakarra nintzen ni. Gasteizen bizi ginen, etxe zahar batean. Nire ama hemengoa zen, Dax-ekoa, aita berriz Barakaldokoa, baina Gasteizen entxufatu behar izan zuten, ez dakit zein bulego lanetan. Gizon absurdoa zen. Ez nuke noski ezergatik ere esango aita maite nuenik. Beti izan zitzaidan arrotz. Ezin dut gogoratu momentu bakar bat ere non biok lasai mintzatu bait ginen. Erlats aditzen

ditut haren ahotsaren oihartzunak: amari afariagatik errixta egiten bait zion, moldegabeki, edo koñaka izkutatu ziolako. Amak egonarriz zeraman. Aita baino dexente gazteagoa zen. Tipo mozkor harekin oker egin zuela konprenitu zuen noski, poliziarekin alde egin bait zuen. Hamaika urte nituen nik orduan. Niri ez zidan ezer esaten inoiz. Beldurra zidan. Umeek, orohar, izutu egiten zuten. Nitaz, arraro nintzela esaten zuen. Zomorro-zomorro, esaten zidan. Animali batetaz hitzegiten den moduan hitzegiten zuen nitaz. Sofako neure txokotik fijo-fijo begiratzen bait nion, berak ebitatu egiten zuen gure begiraden enkontrua. Bere ezintasuna, bere eskalapoinkeria amarekin deskargatzen zituen. Hitz erdiz, suge gisa, jeneralean. Ordea samurtuz gero jo ere egiten zion. Nik ikusi nuen, eskolatik bueltan, beste inor ez etxean, amari ileetatik tira eta lurrean arrastaka zerabilela.

Amak oihu egiten zuen. Begiak ubelduta zituen, sufrimenduarekin. Ttikia zen ama, pollita zen. Ile motza ibiltzen zuen. Ezpainak gorriz pintatzen zituen, eta hazkazalak ere bai. Ipurdi handi samarra zuen, baina galtzak jazten zituen,

aste egunetan. Etxean beti amantalarekin ibiltzen zen. Larunbat-igandetarako, bazituen soineko estanpatu batzuk lore askorekin. Lana larri egiten zuen etxean. Gelak alokatzen hait zituen, kanpoko jendeari. Mutil itsu bat egoten zen fijo, plazan kupoiak saltzen dituen horietakoa. Gero polizi bat etortzen zen askotan. Cacereseko langile gazte batez ere oroitzen naiz, estudianteren batez – eta gero, gau bat edo beste egitera heldu zirenak: enpresa txar bateko gizon ñarro bat, bere maletinarekin, larrujole galduak... Halaxe bizi ginen gu. Indibiduo haiekin afaltzen genuen sukalde ondoko salatxoan. Itsua eta Cacereseko hura edozein zozokeriagatik aritzen ziren elemele buruz buru. Polizia berriz beti isilik egoten zen. Aita zen aluena. Denok afaltzen ari ginen igual eta bera bere txapuzak egitetik etorri eta «Alavés, campeón!» esan eta bere besaulki xare-xikin hartan jartzen zen eroso, egunkariari begira. Gero tankera hartako beste xinplekeriren bat esango zuen akaso, ustez-eta besteek horrelako komentarioak apreziatzen zituztela. Gizajo bat zen. Eta alkoholizatuta zegoen. Ardoak lainotu zuen. Bere begiñoez korritzen zituen

egunkariko orriak, komentatzeko moduko deus ote zegoen. Futbolaz hitzegiten zuen. Orduan bakoitzak esango zuen zerbait, baita poliziak ere. Gero berriz isiltasuna. Caceresekoak, gaiztoa bera, axeka egingo zion itsuari, hau ez bait zen neskekin ibiltzen. Itsua saminduta joango zen bere gelara, langilea kalera, polizia igual gelduko zen telebistara begira. Aita lo mozorrotzen zen. Edo errixta hasten zen amaren aurka edozer zela eta. Igual nire aitzikiaz hasten zen. Aber ez al zuen, amak, niri matematikak erakusteko ordu pare bat atera behar. Ama ahalegintzen zen baina, ez bait zen iristen. Aitak ateleka egiten zionean bera beti egoten zen isilik. Ezagutzen bait zuen. Bazekien sapuztuz gero peligroso zitekeela. Bazekien mokerraldi batean hiltzeko gauza ere bazela gizona. Nik ere banekien, baina pantailako anuntzioei begira disimulatzen nuen. Inoiz ez nuen ezer esaten. Beldurra neukan. Aitaren beldurra, baina ez aitarena bakarrik. Jendearen beldurra neukan, gizonezkoena batez ere. Kaleko mutilena. Horregatik ez nintzen Gasteizen ere kalera ateratzen. Salan egoten nintzen, logaleari eusten, aita eta ama eta polizia

lotara joaten ziren arte. Hantxe bait neukan nik ohea, sala koipetsu hartan. Lo txarto egiten nuen, gauez asko sufritzen nuen. Bizimodu atsekabetsua zeraman amagatik, alkohola erretzen eta gaiztotzen ari zen aitagatik, eta ni berriz inork ez ninduelako maite. Amak ere ez dut uste maite ninduenik. Zergatik alde egin zuen, bestela, ni bakarrik utzita? Polizia maite zuelako. Ni hementxe nintzen uda hartan, osabarekin oporretan. Inork ez zidan ezer ere esan. Irailean Gasteiza itzuli nintzelarik arront zikin atxeman nuen etxea, eta aita sofa gainean lo zegoen, lazo eta narrats. Ama bilatu nuen, baina ez zen inon ere azaldu. Negar egin nuen, uste bait nuen aitak hil egin zuela ama. Baina aita ez zen esnatu. Eguerdian etorri zen itsuak esplikatu zidan gertatutakoa. «Gorka, uste dut zure amak ihes egin duela». Poliziarekin. Gizon altu bat zen polizia, matrail sendokoa. Heriotz samur bat desiratzen diot, neure amari bezala. Sastako bat izan zen niretzako hura. Eta, zer egin nezakeen? Aita txoratu egin zen, ez zuen inor ezagutzen eta zarrapoka ibiltzen zen etxean. Eroetxera sartu zuten negu hartan. Ez dut harezkero ikusi. Ni osabaga-

na etorri nintzen. Etorri eta segidan gaixorik erori nintzen, tripako min izugarriez, kaka beti odolez nahastuta egiten bait nuen. Urtebete egin nuen ohetik altxatu gabe. Aldi hura aprobetxatu nuen, osabaren eta bere liburu zaharren laguntzaz, frantsesa ikasteko. Gainerantzean, etxe itsusia ez da. Txikia da baina, badu bere xarma. Trafiko gutxiko auzategia da hau. Atariaz barnera, badago eskaratz bat, landare batekin, eta gure etxea eskaileretan gora dago. Behean atso odolgose bat bizi da. Madame Démon izena du, berak erregatzen du eskaratzeko landarea. Madame Démonek haginak erauzten ditu baina, osabak dioenez, malefizioak ere egiten ditu. Gure pisuak egitura berezia dauka: solairu batean sukaldea dago, komuna, eta nire gela hau. Goiko solairuan osabaren gela dago bakarrik. Patioan dutxatzen gara, neguan inoiz behinka, udan oso maiz. Hemen, bigarrengo urtean eskolara joan nintzen baina, irakasleek esaten zutenaz ezer gutxi jabetzeaz aparte, beste umeek ere erretxazatu egiten ninduten, estraino eta gibelkari nintzelako. Zatarra, esaten zidaten, piorrea bait neukan, eta neskek ez zidaten begira-

tzen. Hala behintzat, uzten eta uzten joan nintzen eta azkenean erabat laga nion eskolari. Ahoa madame Démonek sendatu zidan: belar-ur mikaitz batetik edan arazi zidan denbora luzean. Xixareekin okerrago da. Horiei gustatzen zaie nire tripa erikoia. Arratsero erasotzen naute eta ez daukat nola ezerreztu. Ikaragarrizko hazkurak nozitzen ditut, eta hori ez da okerrena. Ahuldu egiten bait naute, eta penarazten. Xurgatzen naute, bizia ebasten didate. Gauean xixare-korrok egin ohi dut, ezin bait naiz haietaz ahaztu. Lehen baratxuriak jaten nituen eta hil egiten ziren infernuko harrak, baina hil zitezen geroz eta baratxuri gehiago jan behar izaten nuen – azkenean ordea, kontrako efektoa izandu zuen, baratxuriak, hil gabe, asaldatu bezala egiten bait zituen, niretzat okerrago zena. Gauza bera, ederki moldatzea alegia, gertatu zen osabak erosi zidan medizina gorri batekin, eta gauza bera egun osoa kalabazen pipitak janez egin nituen aste haietan ere. Behin iratzeen erroak biltzera joan nintzen Houdin-go basora, aldiz eta tratamentuak iraun zuen egunetan sabel errabiaturik eta izerditurik ibili eta gero, handik hila-

betera gabe atzera hementxe neuzkan xixare putakumeak. Landare horien eta besteren propietate vermifugoen berri J. Sébillot-en *Chapitres de la medicine populaire des Landes et Pyrenées*, osabak etxean duen liburu zahar eta dotorean ikasi ditut. Horrelako liburu anitz dauka osabak etxean, bere aitonarenak omen ziren gehienak (XIX. mende bukaerakoak, asko), baina oso aspaldikoak ere badira, hala nola –laudare kontu hauekin erlazionaturik– 1789ko *Étrange et curieux discours sur la plante qu'on dit mandragora*, Laurence Catelan-ena, edo 1716ko *Tous les démons ne sont pas de l'autre monde*, Michel Berbiguier-ena. Aurkitu dudan libururik berriena aldiz, Claude Seignolle-ren *Le diable dans la tête*, baina hau seguru aski – osabaren beraren eritziz– bere aitak – eta ez aitonak– eskuratuko zuen, 1952ko fetxa bait dauka. Libururik gehientsuenetan horrelakoxe deabrujeta infernu kontuak aipatzen dira, baina ez da guztiz bestelakorik falta, hortxe dut esate batera – espainolez berau– *La mística ciudad de Dios, milagro de la omnipotencia, abismo de la gracia*, María Agreda-rena, egia esateko irakurtzen hasi eta segi-

tuan aspertu ninduena. Etxetik ez bait naiz apenas ateratzen, liburu horiekintxe ematen dut denbora, dagoeneko bizitzaren zenbait alderdi ilunez normala den baino gehiago dakidalarik. Gehiegi ez ote naizen liburu artean iharduten, esaten zidan osabak, tabernatik bueltan. Nik irribarre egiten nion eta «gehiegi?», galdetzen nion, harrituta bezala. Argaltzen ari naizela ere, astean behin gutxienez esan dit joan deneko urtean. Osaba ona da. Kuriosoa da. Beti eramaten du jantzita txapela. Etxea lotarako, usina beharrerako eta taberna denbora pasarako, bere bizitzak ez du beste misteriorik. Arratsaldeak Le Corbeau tabernan ematen ditu bere lagunekin kartetan. Etxean, bere ohea egiten du goizean eta gainerantzeko lanez neu arduratzen naiz, badut horretarako astirik eta. Orain hospitalean dago. Lehengo hilabetean istripua izan bait zuen. Adreiluak egiten dituzten tailerreko teilatuan ari zen uralita konpontzen, hura hautsi eta lurrera jausi zen, bizkar hezurrean zenbait kalte nozituz. Orain, egunero joaten naiz beragana, ordu pare batez konpainia egin eta kontu batzuk esan. Atzo, haserre irudiko, baina mingostasuna

estali ezinik, bere lagun horiek – tabernakoez ari zen– ez direla benetako lagunak, aitortu zidan, bat ezik ez bait zaizkio ikustera joan. Bere lankideez ere moker azaltzen da. Batzuek, hospitalera bisitan joan ezezik, lantegian istripua zela eta greba egun bat egitea ere proposatu zuten, zeren eta osaba –eta ez du lantegi horretan kasu bakarra izan behar–, lehen, tornoan aritzen bait zen, orain dela gutxi eta jendea sobera zegoelako igeltsero ipini zutelarik, horretarako behar adinako esperientzia edo prestakuntza izan gabe –ordea, eta horrek atsekabetu du, komiteko gehienek ez zuten greba egiterik onartu. Arrazoia du osabak. Lagun gutxi dago. Nik, adibidez, ez daukat batere. Ez naiz eskolara joaten, ez dut lanik egiten. Bilatu egin genuen, lana, osabak txerri granja bat daukan bere lagun batengana bidali ninduen eta gero beste bisita pare bat eginda nago baina, ez bait naiz jende horrekin gustora sentitzen. Jendearekin sentitzen naiz gaizki. Orduan, etxean, neure gelan egiten ditut ordurik gehienak. *La Race basque, étude anthropologique*, R. Collignon-ena irakurtzen ari naiz orain. Gustatzen zait, zenbait xehetasunetan, ni

ere bait naiz, aitaren aldetik, arraza horretakoa. Noski, ale bitxi, endakatu xamarra naiz ni. Aitaren arrastroa ote da...? Lehen, duela bi edo hiru urte, batzutan, fenomeno izugarri estrainoa gertatzen zitzaidan. Ni kanpoan nengoen, gauez, baina-ta behin patioan ere gertatu zitzaidan, eta bapatean petxua daldarka hasten zitzaidan, esku ahurrak eta hankapeak izerditan, buruko min eramangaitza, eta orduan hezurrak handitzen eta okertzen zitzaizkidala somatzen nuen, eta sekulako indarraren jabe sentitzen nintzen. Osabari ez diot inoiz tutik ere esan horretaz. Barre egingo bait luke, jakinez gero. Ordea, egia hutsa da. Ilea ere sentitzen nuen latx, eta uluka egiteko gogoa –eta baju-baju egiten nuen, inork ez nintzan aditu. Oharkabean, horrelakoetan, min handia egin nezakeela iruditzen zait. Sehaska-ume bat jan nezakeela, adibidez. Ni naiz, galdetzen dut, ala demonio bat jabetu ote da nitaz? Bigarrena uste dut, ni horrelakoa ez nintzen bolada baten gogorapena gelditzen bait zait. Baina indar gaizto hori nagusitzen ari zait. Jende askori gaizkia desiratzen diot. Nire eskolako lagun bat hormartetzen nuela imajinatzen dut igual,

hala nola protagonistak Fortunato hormartetzen duen *The Cask of Amontillado*-n. Gure auzo ere baden osabaren lantokiko bat labean erretzen ari nintzela aritu nintzen pentsatzen aurreko batean –eta agreablea zen, egia esatera. Segur, jendeak antzematen dit zerbait. Arraro begiratzen didate. Beldur, pena didate. Eta nik ere, pena sentitzen dut eurez. Denez. Bakarrik neska pare batek ernarazi didate bestelako zerbait, desioa, esango nuke. Neska txiki bat bazen gure eskolan, Lili, beltxarana, nik maite izan nuena baina, ez bait nekien nola adierazi, azkenean beste bategatik utzi ninduena. Hark txit sufrituarazi ninduen. Hari nire hortz handiak gustatzen zitzaizkiola esaten zidan, eta nik irribarre egiten nion, isilik eta pozik. Harezkero ez dut beste lagunik izan. Nire begirada neskaren batenarekin topatzen bada, segituan apartatzen dut, izukoi. Alta bada, lehengoan kontrakoa gertatu zitzaidan. Tren geltokian izan zen. Geldirik zeuden merkantzia trenei begira nengoen, zaldiak, metalak, hildako oiloak zeramatzatenak. Lagun batzuk korrika zebiltzen, beren fardelekin presaka, eta zazpietako trena gelditu zenean bagoietako

jendeari erreparatu nion, jende ilun, jende arrotz, jende irribarretsu, jende buru-xilo, inor ez bait zen ohartzen heriotza zela azkeneko parada. Segadunaren hatsa nabaritu nuen orduan nik, eta gazte samar zirenei bultz egiten ziela, konturatu nintzen, eta zahar samar zirenei bihotza zapaltzen ziela. Jende askok nabari du, ohartu naiz, Hark hanka batetik heldurik daukana. Halako batean, emakume batek distraitu nindu en. Ume batekin zihoan, gero gizona ere ikusi nion. Hark ere begiratu zidan, argi izpi batez, baina bera izan zen bista segituan bazterkatu zuena. Emakume berezia zen. Orduan erantzi nuen. Arropez, ilez, haragiz erantzi nuen, eskeletoa ikusi nion. Eskeleto ederra zuen, arras kraneo polita. Harekin bai gustora larrua joko nukeela, pentsatu nuen, eta hurbiltzekotan egondu nintzen, baina lotsak galerazi zidan. Jendeari hezurrak nola ikusten dizkiodan harrigarria da. Atzo eguerdian bertan, osaba hospitalean garbantzuak jaten ari zela, okotzak erritmikoki mugitzen zituen hura hilotz bat zela iruditu zitzaidan. Beste bi alditan, kanposantuan izan naiz. Han ikusi ditut, hil direnen ondoan, oraindik bizi

direnak, euren tonbak, euren izenekin. Irribarre egiten dut, bizi direnek ez bait dituzte gauza horiek ikusten. Noski, horrela esanda, ametsa dirudi baina, nik badakit, hori benetakoa dela. Izan nintzen azkenekoan – udaberri aldean–, aitzur batez lur kentzen aritu nintzen hilarri batzuren ondoan, eta eskeleto batzuk atera nituen. Osabaren aitonarena hantxe zegoen behintzat, harrak jotako liburu bat zeukala eskutartean lurperatu bait zuten. Kasu hauek ez dira noski batere mireriztekoak, horrelakoez anitz liburu idatzi bait da, bat aipatzekotan A. Calmet-en *Dissertation sur les apparitions des spectres dans l'Hongrie, la Bohemie, la Moravie et la Silesie* aipatuko nuke. Oraingo lurperatzaileak – gizon gazte, errubio eta mozkorra– txunditurik begiratzen zidan, ez bait zuen ulertzen, baina nik ez nion jaramonik egiten. Neure munduan ari nintzen, neure munduan bizi naiz. Osabak ez dit ezer esaten aspaldi. Badaki nolakoa naizen eta ez zaizkio nire gauzak sobera gustatzen. Monsieur Leproux hiltzen ari da, esan nion behin. Monsieur Leproux gure kalean bizi zen, etxe batzuk beherago. Nola dakik, esan zidan osabak, ez bait zuen hartaz

ezer aditu. Usaina, esan nion. Nola usaina?, esan zidan. Ate azpitik ateratzen da usaina, ihardetsi nion. Usain gaiztoa, erantsi nuen. Osabak izularri begiratu zidan, akaso, pentsatu nuen, ezagutzen zuelako ongi Leproux hura, haren pekatuen berri bazekielako. Gure alderdi honetan, bestalde, herio lurrina nabari da beti. Hemen jende gehiena zaharra bait da – irakurri dudanez, Europa guztian izan behar du hola. Dena den, ni, nire edadekoek sentiarazten naute arrotz. Nolaz ez diren ohartzen? Eta, zein ozarki azaltzen diren, begirada urgoiaz, «ni ez naiz hilko», esanez bezala. Eta abioan doaz, Egun horretarantz. Eta umetto ttikiak: lore sortu berrien usaina daukatenak. Horiek maitagarri dira baina, aldi berean, penagarrienak, zeren eta horiek ez bait dakite ezer, ezer, ezer... Horren naute tristatzen haur jaio berriek, non askotan horietako batekin ez topatzeagatik etxetik ez irtetea nahiago bait dut. Etxean, hildakoek egiten didate konpainia lasaia. Hildakoek, joan zirenek pisu handia daukate nire baitan. Hemen, Dax-en *dago* nire amaren familia. Osaba eta biok izan behar dugu enbor zaharretik bizi garen azkeneko fruituak,

baina niretzat ez gara bakarrak. Etxean, kalean somatzen dut beste haien itzala. Batzutan, Yzosse-ko bide zaharrean nabilelarik, gertatu izan zait hango harriak kontuz zapaldu beharra, haien azpian asasinaturiko nire arbasoren bat egon zitekeela inpresioa bait neukan. Hainbeste dira, mendez mende, muga mehea urratuz bestaldera joan direnak. Alditan, osaba irudikatzen dut hilik, eta jendearen horri buruzko solasak ere bai. Bestetan, neure burua ikusten dut postura horretan. Eta hilda banengo, pentsatzen dut, zer esango luke honek, eta hark? Tipo uxaka zen, tipo misteriotsua. Zer esango luke nire amak, jakingo balu? Ez du negar egiten, penaz begiratzen dit eta badoa. Askotan ikusi ohi dut neure burua horrelaxe hilik, kutxa triste batean, eta ondoan Bela. Lehen, lagunik ez dudala esan dizuet. Baina badut Bela. Bela – ez al zait haserretuko, aipatzen hait dut–, nirekin bizi da, nire buruan. Ez dit hitzegiten, baina triste dagoelarik soka mehe batez estutzen dizkit burumuinak, eta pozik dagoelarik saltoka hasten zait, zoro bat bezala. Orain, gose dela somatzen dut, hortz karraska hasi hait da. Haragia eta gailetak eska-

tzen dizkit. Haragia gordinik gustatzen zaio, pasatu xamarra. Gailetak, esnearekin. Egun hauetan ez naiz horixe besterik jaten ari, eta Bela ongi dago. Zoko-zale da Bela, baina batzutan arinaldi batean belarri batetik atera nahi ote duen, somatzen dut, eta bera ikustearren joaten naiz ispilura lasterka – baina Bela atzera kukuldu egiten da, momentuaren zain. Ispiluan neu azaltzen naiz bakarrik, zuri-zuri bisaia, begizulo sakonak, sorbaldetarainoko ilea.

KRISTALEZKO BULARRAK

Urkijo kaleko etxe alokatu batean bizi ginen laurok. Lehenbiziko pisuan; gure gainean beste bi pisu zeuden, eta gure azpian, litxarreria denda baten ondoan, udaletxeko zergak biltzen ziren bulego txiki bat.

Auzo hartako kale printzipala zen Urkijo. Beti jendez irakiten...! Goizez, haren espaloiak etxekoandre presatuz eta mordoxkatan bilduta apal mintzo ziren lanik gabeko gizonez betetzen ziren. Arratsaldez, ama gaztez eta umez –marruma izugarria. Gauean berriz, ni beren errukigabekeriagatik beti beldurtu nauten mutil gazte kuadrilak irteten ziren. Nik, txikitan, kukurrukaturik ohean, haien mozkor-orru eta burrukak entzuten nituen, eta kanpoko argiek gelako sabaiparetetan proiektatu itzaletan presentzia misteriotsuak ikusten nituen. Eta katuak. Sinisgaitza da, gure auzogune hartan zenbat katu zebilen. Ni, gau batzutan katakera ziren eme haien marroek esnatzen ninduten eta hantxe, gure etxeko

kantoian, ume koxkor bati sabela irekitzen ziotela, imajinatzen nuen.

Luziak, berriz, oso ondo egiten zuen lo. Zenbat orduz egiten zuen...! Eta amak, arraboska, noizpaiteko batean jeiki zedin lortzen baldin bazuen ere, atzera bazkalondoan –arratsaldeko klaseetara gabe– bere ohean sartzen zen Luzia aldebateko plazerrez. Niretzat, ikusgarria zen Luzia nagiak ateratzen zituenean esnatu eta gero. Eta berak ere, ni begira nintzela jakinik, luzatu egiten zituen momentu goxo haiek, irribarrez eta gogoan atxikita gelditu zaizkidan oihuska zoragarri batzuk eginik.

Bion gelak elkarren ondoan zeuden, etxe gibelean, gure leihoek parez pare beste etxe bateko leihoen kontra jotzen bait zuten, inor gutxi igarotzen zen kale ziztrin bat erdian.

Agian ume baten ametsak horren leku estuan kabitzen ez zirelako neure barnera begira jarri nintzen ni; uste dudanez, hamaika urterekin idatzi nuen nire lehenbiziko poema.

Gure aitak «Elur» izeneko argitaletxearentzat lan egiten zuen eta, hortik ezer gutxi ateratzen baldin bazuen ere, bihotz-gaitz larri bat izanik,

pentsio bat kobratzen zuen –ni oroitzen, hirurogei mila pezetatakoa.

Aitak ez zuen ia inoiz etxetik kanpo lanik egiten, eta eguna liburuak irakurtzen eta haiei buruz oharrak hartzen ematen zuen. Haren *liburuteka* etxeko beste geletatik apartetxo zegoen, sarreratik abiatzen zen korridore oker batek zeramalarik hara. Gela hura zen bestalde etxekoetatik ekialdera jotzen zuen bakarra. Horregatik ere –goizeko eguzkia txit maite dudalako–, neure opor eta jaiegunetan, aita kanpoan zenean, hango besaulki bigun eta lekutsuan eseritzen nintzen, zirela Salgari eta Verne, zirela – geroxeago– Poe, Lorca edo Xolojov irakurriz.

Ondikoz, gure aita gizon debila zen, eta bere tristealdietan alkoholera jotzen zuen ardura. Liburutekan jasoa whisky botila bat izaten zuen –baina okerrena bere lagunekin irteten zelarik izaten zen, mozkormozkor eginda itzultzen zen eta, hitzik esateke, adurtsu eta mudurri sartzen zen ohera. Nik, amagatiko penaz eta aitak egin zezakeenagatiko beldurraz, apenas lo egin nezakeen horrelako gauetan.

Amaren irudia beti koadro urdin txikiekiko amantala jantzita gogoratzen dut, sukaldean, gixatzen edo –sos batzuk irabaztearren egiten zuena– kanporako arropak josi eta petatxatzen. Beti egoten zen aita edo arreba oraindik etxera heldu ez zirela-ta arrankuraz. Nerbiosoa zen eta ez zekien isilik egoten. Ni, askotan, bere aieneak ez aditzeagatik, liburu bat hartu eta arratsalde osoa pasatzen nuen nire gelan itxita.

1985eko uda hartan nik hamazazpi urte nituen eta Luzia, arrebak, beraz, hamabost. Ni unibertsitatean sartzekoa nintzen eta Luzia, berriz, Santa Clarako Institutoan ari zen oraindik.

Ordea Luzia ez zen batere estudiozalea. Amak behartuta joaten zen Institutora baina, hark askotan egiten zuena zen, hara gabe, lagun pare batekin elkartu eta kafetegi batera edo gure etxetik goraxeago zegoen parke moduko batera buelta bat ematera joan.

Luziak dantzaria izan nahi zuen. Dantzaria... erabat. Hawaira edo Afrika beltzera joan behar zuela esaten zuen eta, horrelako paradisuez hitzegiterakoan, aurpegia botz-argitu egiten zitzaion. Luziak bazuen, aita gurekin oroitu zen ba-

tean erregalatuta, tokadisko bat, garai hartan arratsero piztu ohi mena. Dozena bat disko besterik ez zuen: Miguel Bosé, Dire Straits, Benito Lertxundi... Azkenean, haien kanten letra gehienak arras ikasi zituen, goraki eta noiznahi errepikatzen bait zituen. Luziaren gela kantari posterrez apainduta zegoen. Poster haietako batean bi gazte, larrubixirik, musu amoltsu batean elkartzen zirela oroitzen naiz.

Egun kaskar batean aitak, ez bait zen beti alabarekin ulerkor, kasualidadez haren gelara sartu eta poster hura ikusitakoan «umekeriak!» egotzi zuela gelditu zait gogoan.

Luzia pertsonalitate handiko neska zen. Harro zen bere buruaz, eta zeukan indar hura –dudarik gabe etxean beste inork ez geneukana– erakustea gustatzen zitzaion. Mutilak –are bera baino zaharragoak ziren mutilak ere– menperatu egiten zituen – haiei beti gustatzen ez zitzaiena–, sentsualitatez beteriko bere lazotasunaz. Beraz grina zitezen, besteen desiogai izatea zen bizitzan gehien gustatzen zitzaiona. «Nire ipurdiak erotu egiten dizkin», aditu nion behin Maria, laster bere gurasoekin Madrilera bizitzera joan zen

bere lagun onenari esaten – biak gogoratzen ditut, arrebaren ohean jarrita, bata bestearen ileaz jolasten, mutilei buruz...

Gure auzo hartan bazen diskoteka bat, «Granada» izena zuena, Luzia asteburuetan hara joaten hait zen lagunekin dantza egitera. Bere unerik atsegintsuenak haiexek izango zituen. Aste egunak berriz, eta beharrak behar, paseatuz, lo eginez, disko haiek entzunez, eta ispiluaren aurrean, bere buruari begira igarotzen zituen. Ikasi itxurarik ere ez zuen egiten, eta asignatura suspendituen zerrenda ekartzen zuelarik etxera, amaren ateleka eta gero, instant batez muturtu egiten zen baina, gero segituan «ze ongi, bat aprobatu dut!», esaten zidan niri, xoro-xoro, eta hurruna atzera pozez kantari somatzen nuen bere gelan. Nik halaxe maite nuen arreba baina amari, jokabide axolagabeti hori zelajkausa, hainbesterainoko kezka barneratu zitzaion, ze –zorionez, aldi bakar batean– Luzia psikiatragana eramatera iritsi hait zen.

Ama alaba galduta zegoela sinistuta zegoen. «Neska zirrista, edozein egunetan haurdun etorriko zaigu».

Niri kejatzen zitzaidan gehienetan, aitari ez bait zitzaion horrelako saltsatan bustitzerik gustatzen. «Mutilak xoratzea gustatzen zaio – esaten nion nik–, zer du txarrik horrek?» «Zer du txarrik, zer du txarrik? –erantzuten zidan amak, mikatz-muxinki–. Ikusiko dugu!»

Gure familiak, gainerantzekoan, ez zuen ongi funtzionatzen. «Elustondo» jatetxean egin genuen bazkariaz gogoratzen naiz. Aita, ama, Luzia eta laurok joan ginen. Gogoratzen naiz Luziak, momentu batean, aitaren familiako senide batzugatik, haiek «zahar momorro» batzuk zirela komentatu zuela. Aita harritu zen baina, beragatik, hain zegoen uxkur eta errebes, pasatzen utziko hait zuen, amak ordea, ez gisa hartan hitzegiteko, egin zion arrebari errixta. Luzia defenditu zen, aita amaren alde jarri zen... Azkenean, denok – nik ere parte hartu hait nuen, arrebaren alde– haserretu eta postrerik hartu gabe aldegin genuen handik. Oso ondo gogoratzen naiz zeren eta hura, motibu bikoitzaz egin genuena, izan ere Luziak hamabost urte bete zituen, eta nik egun haietan honakoxe beka erreusitu nuen,

zeren eta hura, diot, lauon azkeneko «bazkari familiarra» gertatu bait zen.

Etxea ama eta Luziaren artean polarizatuta zegoen. Maiz, Luzia eta biak arropa kontu hutsal batengatik hasten ziren eleketa. Igual kolore bizi eta gona motxmotxekiko soineko bat jantzi zuen arrebak eta hura aldatzeko, esaten zion amak. Ezetz, ez zuela aldatuko, Luziak. «Zergatik joan nahi duzu horren probokatiboa? Zergatik ez zoaz zure adinekoak bezala?», kejatzen zen ama, begibera. Luzia gauza haiekin desesperatzen zen. Behin bere gelan mukerraldi haietako batean oihuka aldarrikatu zuenez, amak inbidia zion, zaharra bait zen eta gizonek ez bait zioten gehiago begiratzen.

Nik uste dut bizimodu hertsi eta gexalak, batetik, eta horrelakoetan naturala ere baden alabagatiko beldurrak, bestetik, eraman zutela ama Luziaren nortasun ireki eta antsigabeko hura onartu nahi ez, edo ezin izatera.

Noski azkenean gura zuena egiten zuen arrebak: pasa eta gero ordubete duda-mudaketa, gehienetan bere galtza bakero beltzak eta kotoizko brusa txuria jazten amaitzen zen. Neska

polita zegoen! –baina, haiek zikin bazituen, edo ez bazuen bere gustokorik topatzen, akabo ziren etxeko bakeak!

Uda hartako larunbat umel batean, ama eta biok enkargutan ibili ginen eta, itzultzerako, Luzia ez zen etxean. «Granada»n izango zela, esan zigun aitak. Gau hartan izorratu zuten. Zazpi edo zortzi mutil izan ziren, auzokoak, hamalau-hamabost urtekoak, batzuk berarekin Institutoan ibilitakoak. Nabala baten mehatxuz pinudi batera eraman eta bata bestearen ondoren bortxatu zuten.

Ondoko aste bietan, ez zuen Luziak etxetik ezertarako atera nahi izan. Bapatean, haren bizi nahia, haren boztasuna zeharo suntsitu ziren, arront gaixkitu zen eta besteok ez ginen behar bezala kontsolatzera iritsi: amak txarki, gogor erabili zuen orduan, bronka latza izan genuen etxean; aita berriz ere alkoholean errefuxiatu zen – eta ni, zor, imixila bezala gelditu nintzen, ez bait nuen arrebarentzako maitasun hitzik aurkitu... Abuztuaren azkeneko astean Californiara etorri nintzen.

Engoiti, amaren malkoez lausoturiko gutunen bitartez izan nuen Luziaren berri. Ikasketak utzi zituen eta, itxuraz, ikaragarri ahul eta meihar gelditzen ari zen. Lehengo lagunekin ateratzeari utzi eta mutil motorizatu bat bide zen, askotan, etxera bere bila joaten zena. Mutil harekin alde egin omen zuen, gero, ustez Andaluziara, ez bait genuen haren beste berririk izan.

Gutun horietan ez zidan aitaz ezer esan sekula (aitak berak «musuak» sinatzen zuen inoiz), baina nik, amets batean, *delirium tremens*arekin hospitalera zeramatela ikusi nuen.

Lehengoan, belar-gau batean, Luzia agertu zitzaidan etxeko korridorean. Haren begizulorik, haren masail agorrak, haren irribarre maxkala... Harekin hitzegiten saiatu nintzen baina berak, pikatzen ari zela antzeman niola ulertu bait zuen, ebitatu ninduen...

Badakit koldar hutsa naizela, ez bait dut inoizko oporretan hara itzultzeko adorerik izan –minak atxiki nau. Behin baino gehiagotan, hamalau urte zitueneko Luziaren argazkiari begira, bere dantza-ametsak eta bere sotiltasuna gogoan, burua almohadan ixkutatuta negar egin dut.

Hiru urte luze hauetan, Luziaren neska usain mehe eta xarmanta emeki emeki galduz joan naiz.

Amari bada urtebete idazten ez diodala: karrera ez bukatzea erabaki nuenetik, hain zuzen ere. Lehengo apirilean *Kristalezko bularrak*, nire lehen ipuin sorta argitaratu nuen; aitari bidaliko nioke, baina galdu dut esperantza. Gauez, ahal dudalarik, idatzi egiten dut. Egunez, Olympic zumardiko «Amhorangi» jatetxe korearrean lan egiten dut, sukaldean.

HAIN KOLORE EDERRA ZUEN

Sabina sukaldean bakarrik gelditu zen eta mahaia biltzen hasi zen, harrikoa egiteko.

Aita siestara joan zen. Ama baratzan zen.

Luziano, anai zaharra, dagoeneko mendian. Rufino, gizona, fabrikan.

Xabier eta Santi, bi semeak, lehengusuengana joan ziren herrira.

Eta Jon?

Jon, zergatik segitzen duzu hemen?

Lehengo astean joatekoa zen baina Jesus, anai gaztea, Portugalen igaro zituen bere oporretatik itzuli zen eta «motel nora hoa?, gelditu beste egun batzuk gurekin», komentzitu zuen.

Ederki mozkortu ziren Getariko festetan! Jesusek ez zekien ezer! Zer jakin behar zuen! Baina Rufinok zerbait susmatzen ote zuen... «Egun on», agurtzen zuen Jonek goizero. «Baita zuri’re», Rufinok erantzuten.

Norbere katiluarekin... Ez zuten beste hitzik egiten!

Gero Rufino fabrikara joaten zen, eta Jon Luzianorekin, mendira.

Jon, zergatik sartu didazu gorputzean horrelako beroa?

Sabinak begiak itxi zituen, saihetsetan zirrara bat somatuz. Haren besoetan urtu zen, emakumea! Baina bi seme zituen... Oso kontuz ibili behar zuen. Baina Jon...

Eta berotzen ari zen, berriz ere, mutila!

«Sabina... gatza», eskatu zion bazkarian. A ze begirada bota zioten elkarri!

Gau txarra pasa zuen Sabinak azkena: Rufino ondoan, eta Jon –agian esna bera ere!– aldameneko gelan.

Jon goxoa.

Jon ederra.

Kontuz Rufinorekin.

Soldadu zegoela kastellano bati nabala tripetan sartu omen zion.

Ah bai! Norbait hiltzeko oso kapaza zen. «Egun on».

«Baita zuri’re».

«Gaur ere badugu lainoa», saiatu zen bera, bi gizonezkoen arteko izotza puskatzen, leihotik kanpora begira.

«Bai!», esan zuen Jonek, eta ñabardurez beterikako «bai»a izan zen hura.

«Gero arte», esan zuen joaterakoan, Luziano traktorearekin zain zeukala-ta fite samar irten zen eta. Rufino, isilik! Gizon jeloskorra! Nola antzeman zuen...?

Beste anai-arreba eta koñatuekin, eta zaharrekin ere, ederki moldatzen zen Jon. Bakarrik Rufino... Zer nahi duzu ba!

Gizon basustulenka! Inoiz bere emaztea bestela begiratzen ikasiko al zuen!

Fundizioetan gruarekin txatarra deskargatzen imajinatu zuen Sabinak.

Berak hala aurkitu zuen, behin, paper bat eramaten han izan bait zen.

Arratsaldean leher eginda etortzen zen etxera; baina, orduan, belarretan aritu nahi zuen! Hark lasaitzen zuela-ta... Lanean akitu arte!

Azken energia hondarrak –eta xoxak...!– tabernan xahutzen zituen.

Orduan haserretzen zen... Orduan ematen zuen beldurra!

Hiru urte lehenago, berak supermerkatu batean lan egitera joan nahi zuela esan bait zion, terribleko jipoia jo zion animaliak!

Bazekien bai jotzen!

Harentzat dena libre zen... berarentzat, dena debekatua.

Maitasun kontuan ere halaxe zen: zenbat emakume ibili ote zituen Rufinok...? Berak aldiz Rufinoz aparte gizon bakarra izan zuen –eta hura, noski, ezkondu baino lehen: Simon, Leitzakoa, herriko jai batzutan ligatu zuena...

Orain etxean emaztea seguru zuela iruditzen zitzaion...

Deabrua sartu zen barruraino!

Eta ze deabru...!

San Pedro bezperan heldu zen Jon baserrira. Eurak Panderi maldan belar lanak bukatzen ari ziren eta Santi, semea, etorri zen lasterka, «Jesus eta bere laguna heldu dira!» garrasika. Berak Panderin goi xamarretik begiratu zuen baserrira eta hara!, figura txuri bat atarian...

Maisua zela eta euskaraz ikasi behar zuela. Bilbokoa bait zen, Jesusek hango pisuan ezagututakoa.

Baserrirako majo zegoen ba, bilbotarra izateko. Luzianok hala konprenitu zuen behintzat, egun guztian batera eta bestera ibiltzen zuen-eta: ekaina euritsua izan zen-eta, uztailean errekuperatu behar...

Jonek ile motxa zuen, eta mendizalea zen, hango kolore beltz, atsegina zuen...

«Jon!» hots egiten zion berak, goizero, sei t'erdiak aldera.

«Mmmm!», ez zen hura higitzen.

«Jeikitzeko, esaten du Luzianok».

«Banoa», eta esfortzu handi bat eginez eseritzen zen ohean.

Ederra zegoen, goizeko ordu horietan, auskalo zein ametsetatik esnatu berritan... Segi mendira!

Belar berdeak, belar iharrak, jatenekoak...

Sabinak ontziak garbitzen bukatu zuen eta trapuak xukatu zituen.

Sila bajuan jarri zen eta afarirako lekak prestatzen hasi zen.

Belar iharrak bukatzen ari ziren...

Abuztuaren 1ean izan zen. Jonek etxean hilabete zeramala.

Lan handiko eguna zen, mendian belar iharrak pilatu bait ziren, eta orain dena batean jaso beharra zen.

Beste bi anai eta beraietako baten emaztea eta umeak, eta Santi eta Xabierrekin, Luziano gora abiatu zen. Joni eta berari, ganbarara heldu belarrak ondo paratzeko agindu zien. Giro ezin beroagoa zegoen.

Jon galtza motzetan zen, bularra bilutsik.

Bera, koadrotxoekiko soineko arin batez, painueloa buruan.

Izerdi patsetan biak.

Belar sortak baztertu eta metatu eta soketatik askatu egin behar zituzten.

Ganbara bete antxean zenez, leku estu xamarrean ari ziren biak: bultza sortari, askatu soka, jaso txirrika...

Hitz gutxirekin konformatzen ziren.

Lantzean behin, hantxe bazter batean zuten ur tarrotik, zurrut bana edaten zuten, komentarioren bat egin...

Jonen giharreak daldarka gogoratu zituen Sabinak, belar sorta bakoitza bere tokian utzi eta gero. Bizkarra belar izpiez josita zeukan, eta inoiz sorbaldean edo izterrean itsasten zitzaion ezpataren bat bi hatzen artean atxiki eta mazpiltzen zuen amorruz...

Lokarri bat sortu zen...

«Kontuz sudurrarekin!», abisatu zion Jonek, sorta bat heldu zelarik ganharara.

Irriak...

Jonek momentu batean tarroan gelditzen zen uraz bere burua busti zuenean begiratu zioten elkarri.

Orduan ikusi zuen Jonen begietan lehenbiziko tximistazoa. Orduan iñarrosi zuen...

Lana gogor egin zuten.

Eta Jon, bere izterrari begira...

Eta Sabinaren bularraldeko hotzikara...

Halako batean, ganbarako zulotik, mendian belar gehiagorik ez zela ikusi zuten. Kabletik beheiti zetorren azkeneko paketea.

Hura jaso zuten... «Ez, horra ez», esan zion berak Joni, «hemen badago tokia». Indarra egin

eta, batak bestearen besoa ukitzen zutela, berak esaten zuen zokora bultzatu zuten sorta.

Orduan, Jon beheraka tira egiteko bestaldean jarri zen eta zirrist, lastoekin labandu eta belar gainera erori zen.

Eguzki zati batek bularrak argitzen zizkion mutilari. Elkarri begiratu zioten.

Ateratzeko laguntza eske bezala, Jonek eskua luzatu zion.

Berea eskaintzea instintiboa izan zen. Jonek tira egin zuen eta bera gainera erori zitzaion. Aurrena jeiki nahi izan zuen, gero berriz amore eman zuen: mutilak presionatzen zuen. Jon suak hartuta zegoen – eta su hura berarentzako zen, eta berarengan bapatean biztu zen suarekin bat egiten zuen.

Hain bero zegoen, eta hain kolore ederra zuen, eta hain usain zoragarria –Donen izerdiaren usaina, eta lastoaren usaina, eta eguzkiaren usaina–, haren gaztetasuna, denak batean bera zorabiatu zen eta Jonek musua eman nahi izan zionean, berak ere ahoa zabaldu zuen eta mutil hura estutu...

Jon xamurra, Jon oldarra, Jon irakitan gainean...

Sabina konkorturik zegoen oraindik.

Ohartzerako bata bestearen ondoan zeuden, elkarri begira. Jonengan, ahoa erdi zabalik, sorpresa, harridura eta jakinmina ikusi zituen.

Aho hartan beste musu txiki paratu zuen berak, zutitu eta jantzi baino lehenago. Afaltzeko arraultzak ere beharko zituztela gogoratu zen Sabina.

Tximinia gainetik egurrezko kaxa jaso eta sukaldetik atera zen.

Hamar egun pasa ziren...

Sabina ikuiluaren ondoko mandiopera sartu zen. Une batez, zerbaitek harritu izan balu bezala, begira gelditu zen emakumea.

Tarro gorrietan aldatutako krabeliñak ikusi zituen. Bezperan aitonak moztutako taketak, haizkoraren ondoan.

Amonaren txerri-belarretarako otarrea.

Eskorga...

Lehen arraultza bildu asmoz makurtzera zihoala nabaritu zuen hotsa.

Jon!

Begietan erabakia zekarren... Berak ezetz, eskatu zion, xoilki. Ez zuen nahi eta nahi zuen! Sudur-hegalek salatzen zuten.

Jonek ondoraino etorriz buruko painueloa erantzi zion.

«Bai».

Sabinari arnasa biziagotu zitzaion. Baina bere ezpainek «ez», esaten zuten oraindik, eta Jonek mirariz atzera egin zezan espero zuen.

Baina Jonek «bai», xuxurlatzen zuen, eta bere eskuek emakumearen gerria estutu zuten.

Orduan Sabinari begiak itxi zitzaizkion eta belaunak ahuldu.

Elkarrekin lurreratu ziren. Jon musuka jaten ari zen!

Eta bera gorputza moldatzen ari zen, larru jo zezaten!

Jonen mugimendu urduri bat antzemanik ireki zituen atzera begiak.

Haizkora goitik behera ikusteko lain...! Rufino!

Jonen odolak itsutu zuen...

ARMIARMA

Festa bukatu zen. Seguru aski Beatrice azkeneko bisitekin agurtu-aurreko solasean arituko zen, pentsatu zuen bere gelatik Christophek.

Festa nardagarria! Christophek ez zuen inor ezagutzen eta marmux, bere pentsamentuetan xortuta egon zen denbora guztian.

Tortura bat izan zen!

Negu hartan auto-istripu larri bat izan zuen. Gogoratzen zen elurra ari zuela eta berak, errebuelta batean, frenoa sakatu zuela eta erroitz baterantz amilkatu...

Ez jakin zenbat aste igaro zuen alkohol pote kristalezko batean kontserbaturiko buru xoil bat zela sentsazioaz...

Noizpait etxera bidali zuten...

Eskaiz inguratutako jardin ederra zuen Angeluko auzo erresidentzial bateko *villa* handi batean bizi ziren Christophe eta Beatrice.

Istripuaren ondorioz Christophe hanka-besoez erabat ezindurik gertatu zen, eta entzumena eta mintzamena ere arras galdu zituen. Buruari

zegokionean, lehen denboretako hainbat eta hainbat detaile ahaztu zitzaiola konturatuta zegoen.

«Ahuña»ko beheko solairuko gela zabal batean paratu zioten Christopheri logela. Hango ohetik higitu gabe egin zituen lehenbiziko asteak, bertako leihotik lore gorri ugari zuen jardineko bazter txiki-eguzkitsu bat ikus zezakeela.

Hilabete haietan arreta handiz, amoltsuki erabili zuen Beatricek. Zergatik orain halako beldurra...?

Gaur, batez ere!

Beatricek bere zazpi-zortzi lagun gonbidatu zituen festa hartarako.

Lehen ere beste horrelako batzutan gertatu zitzaiona, pertsona haiek, hasieran, berarekin ere mintzatu ziren, adiskidetasunez esku-zaflak eman zizkioten bizkar-masailetan, ordea berak ez bait zituen ezagutzen harriduraz begiratzen zien: harriduraz, noski! Harik eta besteek, errukiz, begirada bazterkatu eta beren arteko solasean segitzen zuten arte.

Zein ziren, Beatrice! Zer esaten zizuten, niri begira!

Jende xori-apaina... Jende leun, eta tolesa!

Haien autoak demarratzen arituko ziren...

«Ahuña» beste lau *villa*tarako sarbide ere bazen *cul de-sac* batean kokaturik zegoen, alderri izkutu batean.

Christophek bere arnasaren barru-hotsak somatu zituen, bihotzaren taupadekin nor-gehiagoka bizian...

Beatrice oso alai aritu zen festan, etengabe batengandik bestearengana, irri eginez eta edanez. Christophek, bere txoko isiletik, emaztea armiarma-sare lodi bat ehotzen ari zela inpresioa zuen...

Bere gelan zen orain, erabateko ilunean, Beatrice etorri eta erantzi eta ohean sarraraziko zuen momentuaren zain.

Martxoan etxera heldu zenetik ez zion behin ere hutsik egin emazteak, beti jazten, beti erazten, beti komunera laguntzen eta – ume ttiki bati gisa– gosaltzeko ematen. Gelako garbiketa, aldiz, neskame txaparro konkor samar batek egiten zuen, beti izaten bait zuen xahu eta txukun.

Han, gela-goian, ordea, neskame txaparroak eskobaz iristen ez zuen lekuan, bere armiarma

ñabarra zen, etxean begiak irekijzituen momentuan ikusi zuena eta harezkero etengabeko saregintzan aritu izan zena.

Hilabete batez bere lagunik onena izan zen armiarma ñabarra: iluna... iletsua... bere kasakoa...

Ohetik eta egunetik egunera ikusi zituen Christophek armiarma hark bere triangelu erako sarean egindako aurrerapenak. Sarea sabaira ongi tinkatu eta gero, ixkin-ixkinean eraiki zuen enbutuan gorde zuen bere burua. Handik atera gabe egun asko! iragan zuen, ez bait zuen, alajaina, neskame xepelak harentzako jangai zirateken euli edo moskitorik irits zedin uzten!

Azkenean, bera jeiki baino lehentxeagoko egun argitsu batean, gelan zebilen euli txatxu bat haren sareetan erori eta armiarmak haren gainera salto eginez paralizatu zuen, Christopheren ezpainetan irribarre bat loratu bait zen...

Beste behin, medikua etorri zen, ohizko probak egin zizkion eta gero, pozkarrizko zerbait esan bide zion Beatriceri, honek eskuak debotki elkartuz xamur eta xeratsu begiratu bait zion.

Handik bi egunetara arrodaulki batean ipini zuten.

Egun hartatik aurrera bizitza aldakorragoa suertatu zitzaion. Inoiz telebistara begira, inoiz leiho zabalaren parean, jardinera so jartzen zuen Beatricek.

Beatrice!

Zer dela-ta jantzi duzu soineko ñabar, apaingarri txuriekiko hori!

Zer esan nahi zenidan mahaiaz bestaldeko irribarre horiekin!

Christophek matrailak estutu zituen.

Noski, Beatriceri esker hedatu zuen Christophek bere mundu berriaren ezagupenen esparrua. Izan ere, udaberriarekin, jardinera ateratzen hasi zen arrodaulkian. Hantxe, guardasol handi baten pean, denbora entretenituago igarotzen zuen Christophek, eta bertan bazkaltzen eta askaltzen ematen zion emazteak.

Beatrice, aldi hartan, (ordura arte ez bait zen inoiz etxetik ateratzen) bere kanporaldiak maizagotzen eta luzeagotzen hasi zen, eta Christophe, bere etxe-zokotik, ikusi beste deus ezin egin-

da, jardineko mozorroekin erreparatzen hasi zen.

Hasieran, apirila eta maiatzean, jardinaren erdian egoten bait zen, alderdi hartako txingurri motelez elikatzen ziren lur-armiarma txiki-beltz korrikalariak eta intsusi-zuztarretan mukuluka atxikitzen ziren eta amona mantan-gorriek lehiaz jaten zituzten hauts koloreko zorriak zituen denborapasa.

Ekainez, beroago-ta, Beatrice aranondo azpira eramaten hasi zen.

Han, armiarmak ziren nagusi!

Armiarmetarik, beltz ttarrapatariak alde bat, beste bost espezie ezagutu zituen: apenas haririk ekoizten ez zuten luze-trosko batzuk, bait ziren armiarma galkor eta bakunak. Aranondotik jaurtikitako hari ezinago meheetatik zintzilikatzen ziren armiarma gorri-txirtxilak, beren tipitasunagatik zer jaten zuten ezin izan bait zuen sekulan antzeman (horietako bat, bere esku mortu gainean pausatu zen behin, eta hatz artean ibili zitzaion, bere sareñoa hedatuz). Beste bat, ale beltz eta marroa, paretaren zirrikitu ilun-gorde batean altxaturik bizi zen –jardin-festan hain

zuzen Beatriceren lagun sudur-harro bati, eskua haren etxe ondoan paratu bait zuen, bapatean aterata susto ederra eman ziona...!

Laugarren eta boskarren espezieak antzekoak ziren itxuraz eta bizikeraz, biak ziren-eta saredun, nahiz eta sare tajukera oso desberdinak zituzten: batak, kolore horikail zikinekoa, era anarkiko, intuitibo batean ehotzen zuen, besteak berriz, handixeago eta gibelean gurutze-antzeko marrazki txuri bat zuena, zirkulo perfektoa osatzen zuen, ertz-harietatik has eta gero diagonalak eginez eta azkenik erditik kanpo alderako bueltak emanez – ikusgarri zen armiarma tipo horrek, gibeleko hanketariko baten laguntzaz, nola lan egiten zuen.

Ume antojagarri hura! Eskaien kontra bota ez zuen bada baloia, behin eta berriro! «Eh!» berak hots egin nahi izan zion baina inork ez zuen erreparatu... Tximista batek leherraraziko al zituen!

Aranondopetik, Beatricek uzten zuen lekutik, burua piska bat jiratuz, armiarma marrazki txuridun haietarik hiru ikusi ahal zituen Christophek oso ongi, eta beste batzuk urrunago. Zela sarearen erdian, zela sare ertz bateko gordeleku egoki

batean, armiarma haiek euren hari lirdingatsuetan harrapakinen bat erortzeko zain egoten ziren. Orduan, jauzi batez, armiarmak atxiki egiten zion bere biktimari eta, kilazeroez eutsiz, aurreko hankez itzuliarazten zuen eta zeta hari lodiaz edozein mugimendu galerazten zion. Ondoren, sarean gertatu ziren maketsak konpontzen zituen eta gero, zalukara, harrapakinarengana itzultzen zen eta, bai zulora eramanik, bai sarean bertan, plazer handiz ekiten zion haren barne likidoen xurgaketari.

Ez ziren txarrak, euliak! Berak ere, jardinean, probatu zuen azken egunetan, paretik pasatu ahala, harrapatzen...

Afarian ere, inor ez begira-ta, grausk!, bat atzeman zuen!

Pastelak baino gehiago gustatzen zitzaizkion orain euliak eta!

Christop hek eztarria lehor somatu zuen. Gora begira zegoen, han sabaian ilargi betearen argitan geldi-geldirik antzematen zen armiarma ñabarrari begira.

Beatricerekin gogoratu zen ikaraz.

Beatrice! Arropa!

Ez al zen etorriko!

Ikara handia sentitu zuen Christophek, jardineko bere itzalgune hartan lasai-lasai jarririk zegoen arratsalde batean, ikusi zuelarik nola arrosa-sasiko armiarma eme (odol-egarri) batek, egun pare bat deus jan gabe zeramana, bere espeziekide bat ziplatu zuen.

Sare ondoko arrosa osto batean aurkitzen zen kurubilkaturik emea. Arra – ikusi zuen Christophekemeki emeki hurbildu eta adarraren xokomoko batean gorde zen. Gero, tentu handiz, emeak kasu egin ziezaion ahalegindu zen: pauso bat aurrera emanik, sarea ukitu bait zuen...

Emeak, konformidadezko mugimendu lebe batzuk eragin zituen; hartaz arra, lasaiago, harengana menturatu bait zen eta, apur bat limurtu eta gero, jokuan hasi ziren. Ordea pedipalpobidezko sexujotzea eta gero arrak lasterka ihes egiten saiatu bait zen, emeak braust! gainera etorri zitzaion, inmobilizatu zuen eta, biktimaren auxi ahulak gorabehera, bertan jaten, xurgatzen hasi zen, errukigaitz.

Biharamunean haren ordez zango bihurriekiko gorpu bat azaldu zen...

Armiarma arrak halaxe ibiltzen ziren Ahuñako jardinean, errari eta koloka...

Christophek bazuen gogorapen urruna, bera ere, denbora batean, horrelaxe ibili izana, neskaz neska, kontu handiz, non ez bait zen beldurrez, bat eta bestea maitatuz, arriskugarrienak ebitatuz, ziren ederrenetan otzanengana hurbilduz.

Eme batek harrapa bitarte!

Bera Beatricek harrapatu zuen! Berriz ere, behin ere

baino zorrozkiago heldu zion sentsazioak... Christophek alde egiteko beharra sentitu zuen – lehen, jardinean bezala, inor ez bait zen bere beldurraz ohartu.

Ezin zen mugitu! Beatriceren menpe...!

Paret-arrakaleko armiarma beltzaren gisa irudikatu zuen Beatrice.

Ahuñan ere emea nagusi! Eta biktima bat, bera!

Baina... atea irekitzen ari zen! Beatrice! Heldu zen zulora!

Atean estrapozu egin eta begietan sua zuelarik begiratu zion.

Bere gorputz luze eta ziraunaz.

Bere ile ilunaz eta bere aurpegi sekailaz. Hurbildu egin zitzaion. Gizon-gose zen!

Gorputza berotzen ari zitzaiola somatu zuen Christophek. Izu-laborrituta zegoen!

Beatrice ohean, bere ondoan jarri zen. Desioz begiratzen zion. Alkandora altxa eta gorputza ukitzen ari zitzaion. Christophe erbail sentitu zen, terroreak atzemanda...

Zakila! Zakila gogortzen ari zitzaion. Beatricek atxiki zion. Kontuz, arteziaz laztantzen zion. Gero estutu zuen...

Galtzak!

Ez! Lehenago, korritzerik nahi ez zuenean, erabiltzen zuen trukoa gogoratu zitzaion: ume bati lepoa mozten ari zitzaizkiola imajinatu...

Alperrik...!

Christopheri arnasa biziagotu zitzaion. Ikaraz ikusi zuen Beatricek soineko ñabarra altxatuz gainean jartzen zitzaiola...

Arrosa-sasiko armiarmari sartu zitzaiola irudi-tu zitzaion: berak halaxe zuen imajinatu: ipurdi handi, ederra...

Zortzi zangok atxikitzen zuten.

Zortzi begik begiratzen.

Haren sabelalde zabala, armiarma horrible erraldoia...

Gora, behera, gora, behera, gora... Emea guruin pozointsu batez bizia ateratzen ari zitzaiola, iruditu zitzaion.

Ikaratuta, jeiki nahi izan zuen orduan: alde egin behar zuen! Ezin zuen!

Emeak irribarre egin zion eta kelizeroak agiri zitzaizkion.

Aggh!

Odol-kolpe bat sentitu zuen...

Bihotza izan zela, esan zuen medikuak.